



ARGIA

IZARO
ARBE

HORMEN ARTEAN
NESKEI BIDEA
IREKITZEN



» GROENLANDIA DANI BLANCOREN ARGAZKITAN

» BEGANISMOA, JARRERA POLITIKO BAT

» RUTENIERA, SERBIAKO HIZKUNTZA

» JOSEBA OTONDO, BAZTANGO ALKATEA





Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Net Hurbil
- 17 Hor dena gailu

IRITZIA

- 18 June Fernández
- 19 Oier Araolaza
Itxaro Borda
- 20 Iñaki Mendiguren



Groenlandia, izotz eta harrizko uhartea. Bertan egindako argazki erreportajea duzue ikusgai ARGIA honetan. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 41 DENBORAREN MAKINA
- 42 BIZI BARATZEA
- 44 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
FERNANDO TARANCÓN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Miren Olasagasti: "Caracasen aditutako historiak kontatu eta negarra etortzen zait" / Miel A. Elustondo
- 22 | Groenlandia, izotza eta harria / Dani Blanco
- 28 | Iزارo Arbe Izagirre, eskemak apurtu dituen puntista / Mikel Garcia Ildiakes
- 31 | Bizitzeko gainontzeko animaliak ustiatu nahi ez dituen jendea / Irati Sarasua Arabaolaza
- 34 | Ruteniera, txikitasunetik argitara irten nahian / Dabi Piedra
- 36 | Joseba Otondo, Baztango alkatearekin solasean / Mikel Asurmendi
- 39 | Dozenaka erretzen diren birziklapen planten misterioa / Urko Apaolaza Avila
- 40 | Osatze feminista, zapalkuntzen zauriak lantzen / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 46 | Stranger things: E.T., The Goonies eta 80ko hamarkadako esentzia pantaila txikian / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



An aerial photograph capturing a massive crowd of people filling a wide street in Barcelona. The crowd is dense, with many individuals holding the Catalan flag (Senyera). The street is lined with palm trees and other greenery. In the background, various buildings are visible, including a prominent modern building with a glass facade and a traditional stone building with a tower. The sky is clear and blue.

PANORAMA

Burujabetasunaren giharra

Azken bost urteotan Europako mobilizazio politikorik jendetsuenak Bartzelonan egin dira Diadaren egunean. Irailaren 11, Kataluniako Printzerriko "Aberri Eguna", akuilu politiko eta indar erakustaldi bilakatu du independentismoak. Aurtengoan ere ehunka mila lagun kalera atera dira Bartzelonan, Bergan, Lleidan, Salten eta Tarragonan. Independentismoak gehiago instituzionala eskuratu badu ere, independentziari buruzko etorkizuneko erreferendumean gizartearen erdia gehi baten botoak beharko ditu. 2016ko Diada beste pauso bat izan da norabide horretan, Madrildik datozen inhabilitazio eta auzipetze eskaera artean.

Argazkia: Jordi Borrás

“Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroa guda kriminala da”

Dries van Agt, Herbehereetako lehen ministro ohia

argia.eus/multimedia



Busti emankizunaren onena

Bi urteko ibilaldiari amaiera ona emateko, saioaren unerik onenak bildu dituzte. Sortzaileari hitza, tutoriala, dibulgazioa, kafeñoa, hilabete-ko kantua, kakotsak...



AEK Eman Euskara

Ipar Euskal Herrian matrikulazio kanpaina abiatu du AEK-k eta horrekin batera historia, metodologiak, motibazioa eta helburuak azaltzeko bideoa prestatu dute.



ELA SINDIKATUA

Gipuzkoako errepideetan sei hilabete greban

Argia
@argia

Irailaren 1ean sei hilabete bete dira Gipuzkoako errepideen mantentze lanetako beharginak greban hasi zirenetik. Zigorak eta abusuak salatu dituzte euren borroka baloratzeko agerraldian.

Gipuzkoako Aldundiak azpikontratataturiko aldi baterako hiru enpresetan daude greban, martxoaren 1etik. Lan baldintza prekarioei eta ia sei urtez soldata izoztuta edukitzeari kontra egiteko hasi zuten borrokaldia. ELAren agerraldian langileek azaldu dutenez, Aldundia euren eskaerei “ezikusiarena” egin eta saiatzan ari da grebaren eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Zigorak ezarri edo “abusuzko” gutxieneko zerbitzuak erabiltzen ditu eta beste enpresa bat ere kontratatuzera

iritsi da pankartak kentzeko: “Edozerk balio du, gure errepide sarean mantentze lanak egiten ez direla nabaritu ez dadin”.

Erakunde publikoak baldintza-pleguak ere ez dituztela betetzen salatu dute. Abuztuaren 22an langile batek istripua izan zuen errepidean auto batek harrapatuta, gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduari jaramonik egin ez zitzaiolako, sindikatuaren esanetan. Gauzak horrela, mobilizazioak areagotu eta kartelak ugaritu egingo dituztela iragarri dute.

Adinekoen egoitzetan ere, greban

Bestalde, Bizkaiko adinekoen egoitzetako langileak bi aste-ko greba egitera deitu ditu ELA sindikatuak, irailaren 21etik hasita. Bizkaiko Aldundiari eta egoitzetako patronalei “akordioak lortzeko borondaterik ez izatea” leporatu diete.

“Ez da gutizia bat, arrazoia dugu; horrek ematen digu indarra”

IZASKUN LARRUSKAIN, JAIZKIBEL HONDARRIBIKO KONPAINIA PAREKIDETAKO KAPITAINA

Hondarribiko jaietako egun handian, 400 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte Jaizkibel konpainian: “Oso pozik gaude, gero eta gehiago gara”. Azken urteekin alderatuta, ordea, giroa gaiztotuagoa sumatu zuen: “Aurreko urteetan pankartak-eta txikiagoak ziren; hasi dira berriro bi metroko plastikoak erabiltzen. Kale Nagusia gogorra da, tristea; hori ezin da ukatu. Baina ez da gutizia bat, arrazoia dugu; horrek ematen digu indarra”. **BERRIA (2016-09-09)**







Izotza urtzean itsasoko ura gezatzen da eta ozeanoetako zirkulazioa aldarazten du.

Negutegi efektua eragiten duten gas ugari dago poloetan metatuta (CO₂,...). Izotzak urtzean, gasok atmosferara doaz.

Artikoko izotz galeraren eragina Ipar Hemisferioko klima aldaketan




Albedo-efektua
Izotzak eguzkitiko argi-izpiak islatzen ditu. Izotzik gabe areagotu egiten da berotze efektua.



Artikoa berotzeari lotzen zaizkion fenomenoak

- uda beroagoak
- itsas mailaren igoera
- negu hotzagoak, elurteak

- suteak
- lehorteak
- hurakanak
- ekaitz bortitzak
- muturreko hotz-beroak
- euriteak eta uholdeak



EGILEA: GARBINE UBEDA



Eusko Jaurlaritzak hiru hilean 57 etxe kaleratze egin dituela salatu dute

Lander Arbelaitz Mixelena
@larbelaitz

2016ko lehen hiruhilekoan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Alokabidek 57 etxe kaleratze egin dituela salatu dute Kaleartze Stop eta IRPH Stop Gipuzkoa elkarrekin hainbat eragileren babesarekin. Etxegabetzeen, pobrezia eta desberdintasun sozialaren aurkako dekalogoarekin bat egiteko eskatu diete alderdiei.

“Milaka familiarentzat etxegabetze, pobrezia eta baztertzeko arazoek hor diraude, eta okerrera doaz. Horien errudun nagusietako bat Lakuako gobernua da”, adierazi dute irailaren 8an Donostian egindako prentsaurrekoan. “Ez du balio esateak Andaluzian baino hobeto gaudela, Andaluzia India baino hobeto dagoelako, eta India Bangladesh baino hobeto, eta abar”. Salatu dutenez, adierazle europarren arabera, EAEn milioi erdi pertsona dago pobrezia atalasean.

“Lakuak elikadura, etxebizitzan, energia, osasungintzan, hezkuntzan eta menpekotasuna dutenen laguntzetan murrizketak mantentzen dituen aurrekontuak” onartu dituela uste dute. Gasteizko gobernuak, PPrekin batera, legebiltzarrean onarturiko etxebizitza legea ezeztatu duela, eta Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osaga-

riak edo Larrialdi Sozialetarako Laguntza okertzeko erabili duela salatu dute.

Horren aurrean hainbat eskaera errepikatzen dituzte: Alokairu sozial bat finkatzea, salmenta egoeran dauden BOE etxebizitzak alokairuan jartzeko, etxe hutsak alokairuan jartzeko programak eta etxebizitza eskubidea laguntza ekonomikoengatik ordezkatzeko saiakerak alde batera uzteko, besteak beste. Etxebizitza bankuen eskutik galdu dutenen kasurako, etxebizitza zorren ordainean emateko atzeraeragineko aukera ezartzeko eskatu dute, baita “benetan eraginkorra izango den” Bigarren Aukeraren lege berri bat ere. Gasa, elektrizitatea edo ura bezalako oinarritzeko hornigaiak baliabide urriko familiei kentzea debekatzeko, Kutxabank ez pribatizatzeke, etxegabetzeen aurka onarturiko mozioak betetzeko, eta kontsumitzaileak babestu eta IRPH gisa abusuzko klausulak desagertzeko eskatu dute.

Eskerrak eman dizkiete kalean, instituzioetan eta Gasteizko legebiltzarrean hura babesteko konpromisoa hartu duten eragileei: Lanbideko Kaltetuak, Prekarietatearen Kontrako Korrika, Duintasuna eta Gepe erretiratuen elkarrekin, ELA, LAB, CNT eta ESK sindikatuak, eta EH Bildu, PSE-EE, Podemos, Ezker Anitza eta Equo alderdi eta koalizio politikoei.

EKONOMIAREN TALAIAN

Modernizatu dezagun Lanbide Heziketa



Juan Mari Arregi

Europar Batasuneko (EB) enpresen %40 ez da bere profilerako egokitu-tako langileak aurkitzeko kapaz. Badago halako “erreserba ejertzito” bat 20 milioi langabetuk osaturikoa, baina aldi berean badaude ehunka enpresa, enplegatuen bila ibiliagatik, eurentzako modukorik aurkitzen ez dutenak. 70 milioi europarrek ez du irakurtzeko, idazteko eta kalkulurako gaitasun nahikorik, eta EBko biztanleriaren %40 oinarritzeko eza-gutza digitalik gabe bizi da; “langabezia, pobrezia eta bazterkeria arrisku larrian” daude hortaz.

Lanbide Heziketa sustatu nahian dabilen Europar Batzordearen txosten bateko datuak dira horiek. Euskal Herrian gazteen artean langabezia gero eta gehiago dago, %50 izatera iritsi da. Unibertsitateak al-diz, urtero milaka lagun jaurtitzen ditu, arrakastarik gabe, lan merkatura. Zerbait gaizki egin da erakunde publikoen eta familien partetik. Lanbide eskolak abandonatu edo gutxietsi egin ziren, ikasturtea amaitzen zuenak lana aurkitzen bazuen ere. Eta orain, horrelaxe gaude. Enpresa askok gure ingurutik kanpora jotzen du tornugileak, ajustatzaileak, iturginak, fresatzaileak, galdaragileak, hodigileak, mekanikariak eta elektrikariak lortzeko.

Onuragarria litzateke gure gazteak hezi eta trebatzeko, Lanbide Heziketaren modernizazioaren alde ere argi eta garbi egitea. Iraultza digitalaren aroan gaude eta beste industria iraultza baten atarian. Lanbide Heziketak hori guztia hartu behar luke kontuan ikasleak modu egokian prestatu eta enplegu duin bat izan dezaten hemen bertan, inora emigratu behar izan gabe. Bide hori mespretxatzea, gazteen artean langabezia, pobrezia eta bazterketa gehiago sortzea da. Eta Euskal Herriak, gazterik gabe, ez du etorkizunik.



SARE HERRITARRA

Dispertsio politikak 5.000 haur kaltetu ditu ia 30 urtean

EUSKAL HERRIA. *Dispertsioaren haurrak* txostena aurkeztu du Etxeratek, preso politikoen sakabakaketa haurrengan dituen ondorioak azalertzeko. Egundako dispertsioak 1.000 haur inguru kaltetzen dituela salatu du elkarteak eta instituzioei dei egin die, ardura har dezaten. Euskal preso politikoen seme-alabak, anai-arrebak, ilobak eta bilobak “salbuespeneko neurrien mende dauden haurrak” direla salatu du Etxeratek, eta neurri horiek “euren bizitza, garapena, afektibitatea eta etorkizuna baldintzatzen” dutela. Gaineratu dute “dispertsio politikarentzat haurren eskubideak” ez direla existitzen, “dispertsio politikarentzat eskubideak ez direlako existitzen”.

Beste harresi bat Europan

Argia

@argia

Erresuma Batuko Immigrazioarako Estatu Idazkari Robert Goodwillek iragarri du Calais iparraldean (Frantzia) hormigoizko paretak jasoko dutela, inguruan kanpatuta dauden migratzaileak Frantziatik Ingalaterrara kamioietan sartzea eragozteko.

Datutan

Londresen 2 milioi euro gastatuko ditu eraikuntzan: kilometro inguru izango du eta 4 metroko garaiera, irriskorra izateko materialez egina. Irailaren amaieran hasiko lirake lanak. Neurria Frantziako Gobernuarekin adostua izan da, inguruko “segurtasuna bermatzeko” planaren barruan.

Aurrekariak

Lehendik ere toki horretan hesiak jarri izan dituzte agintariek, baina Immigrazioarako Estatu Idazkariak berak onartu duenez alferrikakoa izan da: “Jendea oraindik sartzen ari da”. Hori bai, hormen loreak jarriko dituzte inpaktu bisuala murrizteko.

Kanpamentua

10.000 errefuxiatu biltzen ditu Calaiseko kanpamentuak. Azken asteetan, garraiolari eta bizilagunek kanpamentua desegiteko eskatu dute protesten artean, eta segurtasun falta salatu dute. Erakunde humanitarioen arabera 900 adingabeko heldu baten zaintzarik gabe daude kanpamentuan.

INDARKERIA
MATXISTA



%0,0015

baino ez dira salaketa faltuak, Espainiako Estatuan 2015ean indarkeria matxistagatik egin ziren salaketetatik, Fiskaltzak emandako datuen arabera.

129.292 salaketa egin ziren guztira, eta horietatik 2 izan dira gezurtatuak. Salaketa kopuruak %1,9 egin zuen gora, 2014arekiko.



SOFTWARE LIBREAREN ALDE

“Jendarte askeak, software libre” lelopean teknologia libreen erabiltzaileek sinadura biltzea abiarazi dute, euskal administrazioek software libre erabili dezaten. Dagoeneko 300dik gora lagunen babesa jaso dute.



BIZIKLETA SAREA

9,4 milioi euroko inbertsioa eginda, Iruñea, Donostia eta Baiona bizikletaz ibiltzeko Ederbidea sarearen bidez elkartuko dira, eta Bidasoa eta Plazolako Bide Berdeak ere lotuko ditu. 240 kilometroko ibilbidea izango da, horietatik 90 berriak.



ETB NAFARROAN

ETB irailaren 22tik aurrera ikusi ahal izango da berriz Nafarroan. Vaughan kateak uko egin dio lizentziari, Nafarroako Gobernuak azaldu duenez; beraz, libre geratutako tokia ETBren esku utziko dute.

'Osasun Grexitik ez!' diru gabeko greziarrak hiltzera ez kondenatzeko



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Europako oligarkiak ezarritako politika ekonomikoak bere murrizketekin Greziaren osasun sistema publikoa Hirugarren Munduko mailaraino hondoratu duenean, milaka mediku, zainzaile eta klase guztietako herritar ahalegintzen dira artatzen dirurik ezagatik bazterrean geratutako jendeak. Haien elkartasunez Europa osoan hedatzen ari da *Osasun Grexitik ez!* kanpaina.



"Salonikako ospitale publikoan ikusi dudanak izutu nau, ez nuen espero osasun sistema hain hondoa jota aurkitzerik", hala mintzatu da Yvon Englert Bruselako Erasme ospitaleko ginekologia arduradun ohi eta unibertsitateko irakaslea. "Kliniketako zuzendariak astero beste arduradunekin bildurik aurrekontuak aztertu ostean erabakitzen dute aste horretan zein produktu ez duten edukiko gaixoentzako".

Joan den udan ibili da Englert *Urgences Grece* elkartasun gunearen arduraduna Greziatik. Salonikan zebilela egokitu zaio ikustea hiru egunez etenda eduki zituztela odola behar zuten kirurgiazko operazio guztiak: odolean hepatitis eta hiesa testatzeko produktuak ez zeukan ospitaleak.... "Kliniketako langileei Hirugarren Munduko egoera batean aritu beharra tokatu zaie, baina aurrez horretarako prestatu gabe. Malko artean kontatzen dizkizute beren ezintasunak eta mundu guztiak ahazturik egoteagatik etsipena".

Urgences Grece blogean irakur daiteke: "Europako zibilizazioaren sehaskan, hiru milioi herritarrek ez dute osasun zerbitzuetan sarbiderik. Haurren heriotza tasa bikoiztu egin da 2008tik. Sinesgaitza dirudi hori gertatzea gure Europa modernoan, zeinaren oinarrietako bat baita denentzako izatea segurtasun soziala eta osasun zerbitzuak".

Osasun Grexitik ez! kanpainari ekin diote, Europako agintariei exijitzeko oinarrizko eskubide horiek Grezian ere

errespetatuak izan daitezen eta horretarako neurri zehatz bat ezartzea nahi dute: edozein aurrekontu eta programa ekonomikotan blindaturik egon dadila osasun sistema gutxienez 2008ko krisi aurretik zeukan egoera bermatuz. Osasun zerbitzuak 2008ra itzultzea... gutxi esatea dirudien arren gehiegi eskatzea da gaur Grezian.

Rebecca Harms Europako Legebiltzarrean Berdeen liderra denak ekainean Alexis Tsipras lehen ministroari Atenasen eskura eman dio egoera dramatikoak laburbiltzen duen gutuna. *Troikak* 2010ean Greziari zorra bideratzeko lehenbiziko memoranduma ezarri zionetik, drastikoki moztu zitzaizkion diruak eta pertsonala osasun sistemari.

2009an osasungintzak Barne Produktu Gordinarenean %7 zeraman, Europako herrialdeen batz besteko berdinean; gaur egun %3,5-%4ra murriztuta dago. Ospitaleek 2012an 2.000 milioi euro gastatu zituzten, iaz 1.300 milioi eta aurren 1.160 milioi...

2013tik hasi da ikusten murrizketa horiek krisi humanitarioa eragin dutela greziarren artean. Haurren hilkortasun tasa 2012ko %2,7tik %4ra igo da. Azken bi urteotan haur jaio berrien kopuruk %2,1 gutxitu da eta, aldiz, heriotzak %1,17 gehitu.

Gaixotasunen artean, 2009tik 2015era infartuak ugaritu dira %1,4tik %2ra, diabetesak %7,9tik %9,2ra, depresioak %2,6tik %4,7ra.

Eritasunen Prebentziorako Institutuak iaz egindako ikerketa batek erakutsi zuen egunero botika hartzeko beharra daukaten lau herritarretatik batek bere aldetik murriztu dituela erremedioen erosketak, horiek pagatzeko zailtasunengatik. Bostetik batek erabat utzi ditu botika guztiak, ordaindu ezin dituelako.

Aurrekontuak murriztu izanak material eta langile faltan murgildu ditu ospitale publikoak. Batzuei nazioarteko laguntzaz antolatutako klinika humanitarioek bidaltzen diete materiala. Gai-xoen itxaron zerrendak izugarri luzatu dira. Minbiziak daukatenek erradioterapia hartzeko 4-5 hilabetez egon behar dute zain, honek heriotza probabilitateak asko handituz.

Txostenak aitortzen dizkio Syrizarren gobernuari hilabeteotan egindako esfortzuak, baina lege berrien emaitzak oraindik ez direla ikusi erantsita. Orain lehentasuna Greziako osasun sistema aurrekontuen murrizketen programetatik ateratzea da, dio.

Sendatzea ordaindu ala hil

Europako Berdeek Tsiprasi eskainitako gutuna George Vichas kardiologoak sinatzen zuen. Vichas da Helliniko hiriko MCCH Metropolitan Community Clinic auzolaneko erietxearen sortzailea. MCCH Hellinikon ari den moduan auzoetako 8 anbulatorio txikiagorekin, Grezia osoan beste 50ek artatzen dute jendea doan borondatezko mediku, erizain eta beste herritar askoren artean.



MCCH Metropolitan Community Clinic-ek bere webgunean erakusten duen argazkian, Australian bizi diren greziarren ordezkari Constantine Papagianopoulos andreak Australian bizi diren greziarren artean ordaindutako botikak entregatzen dizkie auzolaneko erietxeko hiru boluntariori. Ezkerretik bigarrena da George Vichas doktorea. Klinikotan ez da diruzko laguntzarik onartzen, edozein emaitzak izan behar du botika edo materialetan. Batzuetan hauen beharra izaten dute teoriar Greziako estatuak finantzatutako ospitale publikoek ere, murrizketak direla medio.

Vichas ospitale publiko batean ari da soldatapean eta orduz kanpo MCCHn. Jarduera nekagarria, forma fisiko onean egotea eskatzen duena, krisiaz eta murrizketez asko erakusten duena: "Urte betetik hona, alabak ez dit galdetzen gehiago krisia noiz amaituko den".

Beste doktore askok bezala Vichasek ere gaizki zeraman txirotasunean eroritako gaixo askoren estutasunak ikustea, diru eta bitarteko faltagatik jendea okerragotu eta hiltzea. 2011ko abuztuan Mikis Theodorakisen kontzertuan zegoen Vichas, Hellinikoko aireportu militar abandonatuan, han entzun zion kantari mitikoari medikuei eskatzen arren laguntzeko lana galdurik aseguru sozialik gabe geratutako eriei, *Troikak* ezarritako murrizketek osasun sistematik baztertuei.

Lan egiten duen ospitale publikoko

zuzendariari baimena eskaturik –"hura ere kezkatuta zegoen osasungintzan aurrekontuak %40 jaitsi eta mediku asko lanetik bota zutelako"– sendagile eta erizain talde batekin Hellinikoko aireportu zaharrean antolatu zuten poliklinika humanitaria.

Der Tagesspiegel egunkari alemanari Vichasek argitua dio borondatezko lanok ez direla adabakiak baizik, jendeen oinazeak arintzeko modu probisional bat, helburua osasun sistema publikoa bere onera azkar ekartzea dela. Eta hain dago txarto sistema publikoa... "Iaz Greziako iparraldeko ospitale batean hila-bete luzez aritu ziren lanean haur jaio berrien zilbor-hesteak lotzeko pintzarik gabe, ezin zituztelako erosi".

Diabetikoek ere asko nozitzen dute insulina ordaindu ezinagatik. Ezin ahaztu minbiziengatik heriotzen ugaritzea,

botiken garestitze eta artatze eskasengatik. Baina, gainera, indartzen ari dira krisiaren seinale diren hiru gaitz: hiesa, tuberkulosia eta hepatitis. Vichasek abisatzen dio Europari infekzio horiek ez dutela mugarik ezagutzen.

Vichas doktorea haserrarazten du –Atenasko aurreko gobernuei beren erruak barkatu gabe– *Troikak* greziarrei ezarritako memorandumak, xehetasun osoz azaltzen baititu osasun sistema publikoan egin beharreko murrizketak. "Sarritan galdetu diot nire buruari ea zergatik bortxatzen gaituzten gastuak murriztera, honekin Greziaren zorra handiagotzea baizik lortzen ez dutela jakinda. Azkenean ondorio honetara iritsi naiz: praktikan ezarri nahi dute ideologia bat dioena dirua daukanak bizitzeko eskubidea duela eta dirurik ez duenak hil egin behar duela". ■

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

f i

Miren Olasagasti, Diasporako donostiarra

«Caracasen aditutako historiak kontatu eta negarra etortzen zait»

Diasporaren alaba dela dio, baina hurrik eman ere ez 'ni ez naiz hemengo' esaterik. Hemengoak bezain hemengo da Caracasen jaiotakoa. Donostiako abertzaletasun zaharraren eragileak ageri dira beraren familian, eta sentimendu horixe helduta bizi da Miren, diasporaren alaba euskalduna.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Zurekin hitz egiteko agindu didate, baina ez dakit non duen hasiera elkarrizketa honen hariak...

Esplikatuko dizut nik. Donostiako Parte Zaharrean, zapata denda batera sartu nintzen. Dendariak zer joera duen ez dakit, baina abertzalea du familia. Nik bizitza zirkularra dela esan ohi dut. Ez dakizu zergatik, baina denbora igaro eta, halako batean, lehenago zeunden tokian jartzera eramaten zaitu bizitzak. Dena dela, dendara sartu, zapata pareak aukeratu, hitzari lotu, izena galdetu, Miren Olasagasti, eta akabo! Jendeari eskemak txikitzen dizkiot, Venezuelako azentua mintzoan eta Miren Olasagasti izena ematen dudanean. Atzerritartzat hartu ohi nau jendeak, baina ez dago horrelakorik, bi maitasun handi ditut nik bizian, Donostia -Euskal Herria, oro har-, eta Venezuela. "Olasagasti, bai. Diasporaren alaba naiz". Harri eta zur geratu zitzaidan dendaria, Miren Olano, eta inondik ere, berak eman dizue nire berri, familiaren historia gal ez dadin.

Zein duzu historia?

Aitona donostiarra zen, Juan Olasagasti Azkue, 1939an Venezuelara joana. Handik hiru urtera, 1942an, nire aita joan zen, Iñaki Olasagasti Alkain. Etxean aditu nuenez, aitona Donostiako Parte Zahar honetako nazionalistetan lehe-

netakoa izan zen, nahiz eta birraitona monarkikoa izan, karlista. Hortaz, aitona hautsi zituen markak etxean, Sabino Aranaren ideien eta Jose Antonio Agirreren atzetik joanda. Badut argazki bat, non gerra garaian, jeneral errepublikano baten hileta ageri den: han dira soldadu errepublikarrak ukabila itxita, eta ondoan, Agirre lehendakaria, sonebreirua jantzita. Han da gure aitona ere, eskuak sakeletan sartuak. Argazkiak badu koxka, hura ikusi eta, aitona ihes eginga ordurako, amona hartu baitzuten atxilo: Trinidad Alkain. Ondarretan eduki zutela esan dit lehengusina baten alabak, baina ez dakit han edo mojek zuzentzen zuten kartzelaren baten eduki zuten Prim kalean. Ez dakit xuxen. 1938-39an behar zuela kalkulatu dut nik. Aitona erbestean eta amona preso, karitatetik bizi ziren etxean. Harrezkerro, aitona ez zuen nahi izan argazkirik ez berari buruz ezer publiko zezaten.

Gerra aipatu diguzu.

Bai. Gerra lehertu zenean, aitona Segurako lehengusu txikien baserrira jo zuen, eta hantxe babestu zuen familia. Lehengusuei esan zien erokeria hark ezin zuela hilabete baino gehiago iraun, familia han utzi eta bera gerrara zihoala baina laster itzuliko zela. Bitartean, ordea, agindua eman zuten aitona bilatzeko eta atxilotzeko, eta berak hori jakin

zuenean Frantzia aldera ihes egin zuen Pirinioetatik barrena.

Gerrako historiak beti.

Nik ez dakit familia zenbat denbora egon zen Seguran, baina ezin hiru urtez han egon! Noizbait, amona Donostiako etxe honetara itzuli zen, eta ordurako osaba Manuel ere gerran ibilia zen, eta Donostiara itzulia: etxeko bosgarren solairuan bizi zen. Etxebizitzari pusketa bat kendu eta ezkutaleku bat egin zuen bertan. Han bizi izan zen bera. Bila zetozkiola jakiten zuenean, ihes egiten zuen teilatutik teilatuta... Gisako historiak aditu izan ditut nik aitaren ahotik, eta ez zituen askotan kontaktzen, ikaragarri hunkitzen zen-eta.

Venezuelan aditu dituzu istorio-historiak.

Aitona Venezuelara jo baitzuen, garai hartako euskaldun askok bezala. Medina Angarita presidentearen gobernuak euskaldunei sarrera eman zien, dokumentazioa eduki nahiz ez. Aitona ez zuten harrapatu, baina, ordainetan, seme-alabak zigortu nahi izan zizkioten. Haren anaia Joseba, esaterako, Atzerriko Legiora bidali zuten, Marokoko gerrara borrokan. Gure aitari berdin gerta ez zekion, soldadutza adina baino lehen aitona Venezuelara deitu zuen eta, ondorioz, desertoretzat jo zuten. Gainerako senideak adin txikikoak zituen: osa-

*Donostiako Kale Nagusian,
familiaren etxe atarian.*



Miren Olasagasti Falcón

1955, Caracas, Venezuela

Arkitektura ikasketak egin. Donostiarra zuen aita, gerra ondoren Venezuelara joan eta bertan ezkondua. Hiru urte zituela egin zuen Mirenek lehen bidaia Donostiara, eta bizialdiak eginak ditu bertan. Honenbestez, Euskal Herriari zinez lotua. Caracasen ere euskal etxean ohi zen Miren larunbatero, ikastolan, esaterako. Igandeetan, aldiz, tiro-poligonoan, aitaren ondoren, ez alferrik izan baitzen Iñaki Olasagasti Alkain Munduko txapeldunorde plater-tiroko eskeet modalitatean Egipton eta Alemanian, 1961ean. Venezuela ordezkatzeko zuen.

ba Mikel aita baino lau urte gazteagoa zen, eta izeba Miren, sei. Horrela joan zen aita Venezuelara.

Eta Venezuelan, zer bizimodu zure arbasoek?

Aitonak aurrezki kutxan egiten zuen lan hemen, eta Venezuelara heldu eta tabernari lana egin behar izan zuen, euskaldunen tabernan. Politena zuen izena taberna haietako batek. Aitak ez zuen edaten, ez zekien tabernako lanik, baina liburuxka bat egin zuen, koktelak eta edariak nola prestatu jakiteko. Horixe izan zuen lehen lana Venezuelan. Geroago, zenbait familia aberatsen administrari jardun zuen. Mendoza sendiarentzat lan egin zuen –Polar garagardo-fabrikaren jabeak garai batean, elikagai konpainia handia gaur egun, eta oraingo erregimenak oso pertsegitua–, eta baita Velutinitarrentzat ere; etxegile zailduak. Aitonak kontabilitate lanean jardun zuen 1950 arte.

Eta aitak?

1943an aitak nire ama ezagutu zuen. Venezuela ekialdera, Cumaná hirira kanalizazioak egitera lanera joanda. Aitak hemezortzi urte, hamazazpi amak: ezagutu orduko egin omen zuten bat. Ama ikusgarria zen, neska ezinago ederra, polita, lasaia... Aita, aldiz, metro eta laurogeita hamarreko gizona –*luziak*, luzeak, esaten zieten Donostiako Parte Zaharrean–, mundua hankapean ibiltzeko itxurakoa. 1950ean ezkondu ziren, ordu arte aitak hemengo familia diruz laguntzen jardun zuelako lanean. Izan ere, hemengo bi anaiak Venezuelara eramateko asmoa zuen, eta eraman ere bai. Izeba Miren –Miren Koruko, berez–, hemen gelditu zen, gaixorik zegoelako, amaren ondoan. 1948an eraman zituen aitak bi anaia horiek Venezuelara, eta orduantxe, zorigaitza.

Zorigaitza?

Bai. Atzerriko Legioan ibilitako anaia ere, osaba Joseba, kontabilitate lanean hasi zen Venezuelako familia ezagun batean, eta hango alaba bat osabaz maite-mindu zen. Osabak, ordea, emaztegaia zuen hemen, eta Venezuelako neska hark –gutziz obsesionatuta–, akabatu egin zuen osaba Joseba, Venezuelara heldu eta sei hilabetera. Eten handia izan zen hori. Lehen orrialdeko albistea izan zen egunkarietan. Urteak geroago jakin nuen nik osabari gertatua, paper zahar

batzuen peskizan nenbilela: “Pasio-hil-keta” irakurri nuen. Familia aberatsekoa zen neska eta halako bertsio bat zabaldu zuen. Hemengo familian sekulako zalaparta eragin zuen osabaren heriotzak, aita Venezuelako neska batekin baitzabilen ordurako, eta hori gertatu ondotik pentsatu zuten hango neskekin ibiltzeak ezin zezakeela onik ekarri. Bestaldetik, gure amaren familiarentzat ere, atzerriarra ez zen ezkontzarako aukerarik egokiena. Hala ere, nire gurasoei dago kienean amaiera zoriontsua izan zuen istorioak, nahiz eta oso garai latz eta kopirilatu bizi behar izan zuten.

Ni hemengoa naiz

“Nire azentua aditu eta harritu egiten da jendea, baina hau nire herria da. Donostiara baino lehen, Hondarribira heldu eta malkoa irteten zait. Bizipen mordoa dut hemen, hiru urte nituela egin nuen lehen bidaiatik honakoak. Emozioak borborka hasten zaizkit eta, orduan, atzeritartzat hartzen nautela ikusten dudanean, esaten dut: ‘Jainkoarren!, hemengoa naiz, zu baino hemengoagoa, nahi baduzu!’”

Etxea

“Birraitonarena zen etxe hau, Donostiako Kale Nagusiko 9.ean, goitik hasi eta behearaino. Zurgindegia zuen etxepean, tailerra. Uste dut 1850ean erosi zuela etxe osoa. Jose Mari Olasagasti Aiarragarai birraitonak lau seme-alaba izan zituen. Zaharrena zen Ramon, zurgindegian aitarekin lanean. Bigarrena zen osaba Manuel, donadoa. Hirugarrena zen Jabier, Donostiako zinegotzi izan zena 1919an, Dolores Rodriguez Galekin ezkondu zena. Gazteena izan zen gure aitona, zurgindegian lan egin ez zuena, eta aldiz, politikan muturra sartu zuena”.

Aita Cumanára joan zela lanean esan duzu.

Bai. Venezuelako oihanaren bihotzean ari ziren lanean, Guanare ibaia kanalizatzen eta haren gainean zubiak jasotzen, Herri-lanetako Ministerioarentzako lanean. Han ari zela gaixotu egin zen aita, sukhar horia harrapatu zuten. Gaitzari “ekonomikoa” izena ematen zioten han, ez zegoelako sendagaietan gastatzeko dirurik eta jendea erremedio gabe hiltzen zelako. Hala ere, sendagile batek leherrenak egin eta salbatu zuen aita, 21 urteko mutil sasoikoa orduan. Aita esker oneko izan zitzaion harrezkero sendagile hari –Asuaje doktorea zen–, eta gero, aita Caracasera bizitzen joanagatik ere, urtero egiten zion bisita sendagileari, hiriburutik Apure estatura.

Zer kontaktzen zizun aitak hemengo gartzaroaz?

Gogoratzen naiz, ni lotan, deiadarrak aditu izan nituela behin edo behin. Orduan, amak astindu egiten zuen aita, esna zedin, eta aitak esaten ziona dakit: “Eskerrik asko, ama, bizia salbatu didazu. Ni fusilatzen ari ziren”. Aitak kontaktzen zuenez, osaba Manuelek, etxe honetako ganbaran ezkutatuta egon zenak, ingelesen bidez heltzen ziren albiste bila bidaltzen zuen aita, Manuel bera baino anaia gazteagoa. Aitak botatan sartuta eramaten zizkion berriak, tropek etxeratzekeo deia jo baino lehen. Trukean, osabak eskupekoa ematen zion. Aitak esaten zuen behin baino gehiagotan geratu izan zela Barandiaran ondoko gozotegi batean goxoren bat erosten, etxeratzekeo deia jo zutela konturatu ez, eta behin edo behin soldaduek edo harrapatu eta kolpeka eraso ziotela. Aitak kontaktzen zuen, beste batean, nola tropa frankistak Donostiara sartu eta armamendua hustu zuten Plaza Nagusian. Lagunekin joana omen zen mojen baratzeria, sagar-lapurretan edo, baina baratzezaina ohartu, eta beraien atzetik abiatu zela. Plaza Nagusian, non tropek armamendua hustu baitzuten, granadak harrapatu zituztela, bengalak edo etxafuegoak zirelakoan, eta atzera mojen baratzeria itzuli omen ziren, granadak botatzen. Ume zaharrak zer diren! Ez zuten kontzientziarik! Harrezkero, ikusita nago San Telmo museoa irudi bat, “Haurrak gerrara jolasean”. Bada, horrexetan ari ziren aita-eta.



“Hemen geratu zirenak nola edo hala historia barneratzera iritsi ziren. Aldiz, hemendik alde egin behar izan zuen jendea ama-lurretik erauzi izan balute bezala bizi izan zen”

Hemengo kontuak zituen.

Han, hemengoak. Caracasen bateko eta besteko hariak lotzen zitzaizkion, historiak gurutzatzen eta txirikordatzen zitzaizkion... Urriaren 30etan *halloween* ospatzen da Caracasen. Nire seme Iñaki txikia zela, beraren ikasgelako 28 haurrak hartu eta etxera ekartzen nituen, askarian. Aitak, betiko galdera beti: “Euskaldunik ba al da Jose Iñakiren gelan?”. “Bai, nonbait! Patxi izena du, behintzat, mutiletako batek. Baina ez dakizu, oso jende arraroa da!”. Haurraren aitaren izena Patxi Badiola zen. Arraro gabe, itxia zen familia hura. Eta aitak: “Patxi horrekin egon beharrean nago, haren aitona ezagutu nuen Donostian”. Ez sinestekoa ematen du, baina hala zen. Nire aita delako Patxi Badiolari joan eta esan zion aita ezagutu zuela. Patxik, ezetz: “Ezinezkoa da. Aspaldi hil zen gure aita. Onenean, Caracasen bizi den beste Badiola baten aita ezagutuko zenuen”. Aitak bereari eutsi zion: “Ez, ez, zure aita ezagutu nuen nik. Are gehiago, bertan nintzen zure gurasoek elkar eza-



Iñaki Olasagasti Alkain zen Miren Olasagastiren aita. 1942an joan zen Venezuelara. Aita han zeukan. Iñaki emaztearekin ageri da argazkian.



gutu zuten egunean: jai-eguna zen, eta baserri batera joan ginen bazkaltzera zure aita eta biok. Horretan, etxeko alaba irten zen, hamabost urtekoa, eta zure aitari gustatu, eta esan zion berarekin ezkonduko zela. Neskak izututa begiratu zion, eta abantadan joan zen, ez zela berarekin ezkonduko esanez. Urteak igarota, Patxi baserrira itzuli, konkistatu zuen, eta ezkondu zen zure ama Mentxu zenarekin". Delako Mentxu deskribatu ere egin zion!

Harrigarriko historia-istorioak erbestean.

Elkarrizketa ez zen horretan bukatu. Kontua da Mentxuren familia hura ere donostiarra zela, Parte Zaharrekoa. "10. zenbakian bizi zirela uste dut. Pagola Barandiaran ziren haiek".

Aitari aurpegiko kolorea mudatu zitzaion, zurbildu egin zen eta, ondoren, metro eta laurogeita hamarreko gizonkoteak negarrari eman zion. Negar eta negar egin zuen! "Zer duzu aita?", galdetu niolarik, haren erantzuna: "Barandiaran andrea, jatekorik ez genuenean jaten eman ziguna". Horra berriro zirku-lua itxi.

Eta, gaur egun, zer zaizkizu bizipen eta oroitzapenok?

Gerra trauma latza gertatu zitzaion hemengo jendeari, ezin bestela izan. Askok alde egin zuten, asko bertan geratu. Nire iritziz, hemen geratu zirenek denborarekin batera eboluzionatu zuten,

Azken hitza: Eskutitz *reality*-ak

"1943tik 1948ra bitartean aitak amari idatzitako 23 eskutitz dauzkat gordeak. Eskutitz ezinago erromantikoak, bistan da, eta aldi berean, libertigarriak, jostari eta errealistak. Oso *reality*-ak ere bai".

eta nola edo hala historia barneratzen iritsi zen. Aldiz, hemendik alde egin behar izan zuen jendea ama-lurretik erauzi izan balute bezala bizi izan zen. Bestelako testuinguru batean bizi zen jende hori, baina, nahitaez, garai bateko osagaiak berragertzen zitzaizkion. Eta haustura eta etena berritzen ziren. Nik, hasteko, Caracaseko etxean aditu ditudan historiak kontatzen ditut. Eta kontatzen ditudalarik, negarra etortzen zait. Nire aurrekoen bizipenak birbizitzen ditut. Miren Olano dendariak lekukotasunok galtzen uzterik ez dagoela esan zidan, eta gizonak, berriz, idazteko esaten dit, baina ez daukat gaitasunik, arkitektoa naiz, ez idazle, ez kazetari. Orduan, nik aditutakoak semeari kontatzen dizkiot, gal ez daitezten. Gure artean ez daudenak omentzeko modua dut haien historia kontatzea. ■

**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa - Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

www.eskulanenetxea.com

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5 · Donostia · 943 420 205



Burkini madarikatua

N eskalagunari honela esan nion: “Feministen ahotan burkini hitza entzuteak asko amorratzen nau. Alegia, hori janzten duten emakumeek ez dute burka erabiltzen, *hiyaba* baizik. Seguru asko termino hori iraingarria suertatuko zaie. Jakin beharko genuke nola deitzen dioten eurek”. Irribarrez erantzun zidan: “Bainujantzia deitzen diote”.

Burkiniaren polemika maltzur eta zentzugabearekin gutxienez hauxe ikasi dut: gure etnozentrismoa alboratzeko erne mantendu behar dugula.

Eskerrak, feministok argi daukagu Frantziako alkateen ekimenak emakume musulmanen kriminalizazioa dakarrela; helburua terrorismo islamikoaren mehatxua-ren harira bozak irabaztea eta kontrol poliziala areagotzea dela. Baina askok diote isunen kontra egon arren, emakume musulmanen janzteko eskubidearen irakurketa kritikoa egin behar dugula, beloak inposaketa patriarkal argia eta kezkarria omen direlako.

Rosa Cobo galiziar zientzialari politikoak, Facebooken honako argudioa bota zuen: “Guretzat [emakume europar laikoentzat, alegia] ona dena ez al da ona besteentzat ere?”. Esaldi horrek unibertsalismoaren izaera etnozentrikoa agerian uzten du: gurean askapen ikurra dena (esaterako, nudismoa), edozein testuingurutan aplikatu beharra dago. Guk dakigu zer den besteentzat ona.



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari



Twitterren norbaiti irakurri nion emakume musulmanek Europako sufragisten bidea jarraitu behar dutela. Gure aitzindariak izan behar dute besteen bide-erakusleak.

Joera harroputz horren aurrean, feminismo deskolonizatzaileari arreta jartzearen beharra ikusten dut. Feminista islamikoak, indigenak, beltzak edota ijitoak ozen esaten ari zaizkigu: “Gure zapalkuntzei buruz eztabai-datu orde, gure borroka aintzat har

ezazue, zuen paternalismoak ere zapaltzen gaitu eta”.

Azken hilabeteetan, hamaika hanka sartze, aurreiritzi eta jarrera etnozentriko topatu ditut burkiniaren eztabaidetan (neureak barne). Hots, *burka*, *niqab* eta *hiyab* zapien artean ez desberdintzea; arabiar eta musulman kontzeptuak nahastea; Europako hondartzetan estalduta bainatzen diren emakumeak atzerri-tarrak edo etorkinak direla esatea.

Feministok gizonen eskatzen diegu euren eguneroko jarrera matxistak identifikatu dituzaten eta berdintasunaren borrokan

parte hartu nahi badute, bigarren lerroan jarri eta ikas dezatela. Kasu honetan guk hori bera egin beharko genuke: “besteen” zapalkuntzak epaitzeko ahalmena daukagunaren ideia alboratu eta emakume anitzen esperientziak, aldarriak, erreferenteak eta estrategiak aditu. Litekeena da orduan gure beloren bat ere erortzea. ■

Ameriketako Estatu Batuetako tele-sailetan presidenteak maiz *I'm the leader of the free world* (mundu librearen buruzagia naiz) dio. Rosa Cobo irakurtzean esaldi hori gogoratu nuen. Alegia, feminista europar txuri asko munduko emakumeen abangoardia sentitzen dira eta zapalduagoak omen dauden emakumeak askatzeko eginkizun morala daukatela uste dute. Azken egunotan

Txapeloaz



Oier Araolaza
DANTZARIA
@oaraolaza

Smithsonian Fundazio estatubatuar aholtsuak Euskal Kulturari eskaini dio Washingtonen egin ohi duen folklore jaialdi erraldoia. Eztabaida izan da euskal ordezkaritza folklorikoegia ala justu kontrakoa, folklorea-rekin akonplejatua izan ote den. Nik bigarrena diot, eta salatu nahi izan dut euskaldunok Ameriketara erakutsi dugula gure folkloreaz lotsatzen garela.

Munduko kultur ondare bizia ezagutzera ematea du helburu Smithsonian Folklife jaialdiak.

Antolatzaileek euskal agintariei egindako eskaera argia zen: euskal folklorea, ondare tradizionala ezagutu nahi zuten. Euskaldunak moderno itxura eman nahiarekin obsesionatuta aritu gara: *Innovation by culture* lema jarrita euskal ordezkaritzari gure konplexuak behin eta berri agertu dira programan: bertsolaritza *Modern bertsolaritza* izan da, sukaldaritza *Innovative Gastronomy*, herri kirolei buruz aritzera-koan *Innovative Technologies in Sport* eta euskal dantzaz hitz egiteko *New Paths in Basque Dance*.

Gure folkloreaz lotsatzen gara, eta ondorioz, ez dugu gure kultur ondarea ezagutzen. Edo alderantziz ote da? Ez dugulako ezagutzen lotsatzen gara gure kultur ondareaz? Ez dakit zein den oioa eta zein arrautza, baina biak ditugu gurekin.

Washingtonen, euskal dantza ezagutzera emateko saioetan *Txapeloaz* dantza erakusten

aritu dira euskal ordezkariek. XIX. mendean, Ameriketako Estatu Batuetan, Ingalaterratik iritsitako dantza inozo xamar bati aldaketa txiki baina iraultzailea egin zioten. Esaldi bakoitzaren bukaeran bikote aldaketa antolatu zuten. Gaur egun arte dirauen arrakasta izugarria eman zion horrek. *All American Promenade* izenarekin ezagutu zuten Eskandinavian XX. mendean eta *Aleman's marsj* izenarekin hedatzen jarraitu zuen European barrena. 1970eko hamarkadan Frantziako Chappelle des Bois herrian ikastaro batean erakutsi zuten. Han ikasi zutenek, dantzaren izenarekin akordatu ezin eta *Chapelloise* [Chappellekoa] deitzen hasi zitzaizkion. Euskal Herrira Patxi Perezek ekarri zuen 1990eko hamarkadan. *Chapelloise* gurean *Txapeloaz* da, dantza bera, izen bera, grafia euskaratuta.

Ondorioa? Ipar Amerikako dantza bat erakutsi diegula euskaldunok estatubatuarrei, euskal dantza delakoan eta milaka urteko gure kultur ondarearen erakusgarri. Euskal Herrian artista handiak ditugu tangoa, capoeira edo hip-hop-a dantzatzeko, eta modernoak eta kosmopolitak gara. Erakutsi nahi izanez gero horien ikastaroak eta erakustaldiak eman genitzakeen Washingtonen. Susmoa dut, ordea, ez gaituztela gonbidatu Ameriketara bufaloak ehizatzen eta bakearen pipa erretzen erakustera. ■

Argi eta itsu



Itxaro Borda
IDAZLEA

Beti aurkitzen dira hilketarik itsuenak onarrazteko moduak, batez ere euskaldunok naturaltasunez gogoko ez dugun Frantzia jokoan dagoelarik: jihadistak ankerrek Paris bietan eta Niza sarraskitu zituzten gobernu sozialistak Mali Iparraldean eta amerikarrek Siriaren bonbardatzen dabilelako, interes mineral eta ekonomiko zakarregatik. Gertatua merezitua liteke, aski luke Frantziak xuxen martxatzea!

Larrun aldizkarian, udaran, Nils Andersson ikerlariaren elkarrizketa irakurtzean, hausnar nabilen: noski geopolitikaren alorra sakonetik ezagutzen duen batengandik ez zen komentario ezberdin eta zehatzagorik igurikatzen ahal. Lerro

osoan arrazoia duela ezin uka: atentatuak, derri-gorrez, gorago aipatu injerentzia zitalaren ondorioak dira. Baina ISISen terrorismoaren bideak iragar ezinak dira eta justifikazio objektiborik ez dute beharrik, alderantzizkoa sinestarazten diguten arren. Berriki eta agudo islamera konbertituek europarran frustrazio orokor oldean gorrotoa lantzea nahikoa dute, etsaia nor den finkatzea, auzo txiroko haurridea baldin bada hobe, eta mundu errealetik baztertze horretan justiziagile odoltsuaren paperean bermatzea, jotzeko, Frantziara, Belgikara, Alemanian, Ingalaterran, Danimarkan...

Hitzordua dut Carrie Mathisonekin. ■

El hereje

Udako atsedeen-egunak bi monasteriotan eman ditugu Gaztela Zaharrean. Inguru hartara gindoa-zenez, eta neukan zor bat kitatzeko, Miguel Delibesen *El hereje* eraman nuen irakurgai. Gaztelako lehen protestanteetako baten bizipenak kontatzen ditu nobelak maisukiro. XVI. mende erdialdera, Inkisizioak luteranoen aurka ekiten diolarik, Espainiatik irtetea erabakitzen du protagonistak; Nafarroako Zilbetin mugalariaren etxera iristen denean beste aldera pasatzen lagun diezaion, atxilo hartu, Valladolidera eraman, epaitu, torturatu eta...

Hala beharko zuen, eta liburua bukatzen ari nintzela zabaldu zen EAEko hauteskundeetara aurkezteko Otegiren inhabilitazioaren berrespena. Zenbait hedabidetako iritzia irakurrita, ezin saihestu ondorioa: ia bost mende igaro arren, eta aldeak alde, Espainian oraindik indartsu dagoela herejeak "sortzeko eta erretzeko" joera zahar hura. Lehen erlijioa zen aitzakia, orain Espainiaren batasuna (gehi ETA, ahal bada).

Oporretan izan ditugun solaskideen arabera, gaur egun batez ere Katalunian dituzte herejeak, eta agian bakarren bat Euskal Herrian, baina oro har euskal herejeok ez gara oso arriskutsuak orain. Estatu osoko zenbaketan boto



Iñaki Mendiguren

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Bakoitzak ikusiko du zer egin irailaren 25ean. Baina herejeak beharrezkoak dira gizarteen osasunerako. Noiz izango ote da posible "hereje" guztiak hauteskundeetara aurkeztea?

gutxi gara, Gorteetan aulki gutxi, geure artean banaturik gaude, eta gutarren aurrean ahoa berotu arren, ahulak gara Estatuaren tresna guztien aurka; aritmetika parlamentarioak opariren bat egin ezean, gutxietsi edo erabili egiten gaituzte. Dena den, Espainia sakoneko

solaskide horiek oso etsita sumatu ditugu beren buruarekin, balizko hiru-garren hauteskundearen aurrean; izan ere, ez bakarrik periferian, baizik eta erdian, muin-muinean ditu Espainiak orain arazo potoloak.

Gutxienez, EAEn egin ditzagun geure lanak txukun datozen asteotan. Ez omen da esperimentuetarako garaia. Baliteke. Gobernua kontu serioa da heldutasun gutxiko abenturetarako. Baina aspaldi esana da ez dagoela ardo berria zahagi zaharretan jartzetik. Eta ardo berriaren premia handia dugu, ukaezina baita azken urteotan, krisiaren izenean, ardo ozpindua sartu digutela; halaber, ukaezina da datorkiguna ez dela askoz gozoagoa gastu-mugaren, metaturiko zor publikoaren, (jasanezina omen den) pentsioen egoeraren... estakurua.

Bakoitzak ikusiko du zer egin irailaren 25ean. Baina herejeak beharrezkoak dira gizarteen osasunerako. Aurreko haien sakrifizioari esker, gaur egun posible da protestanteok edo beste edonork monasterio katolikoetan atsedeen-egun eder batzuk igarotzea. Noiz izango ote da posible "hereje" guztiak hauteskundeetara aurkeztea? Noiz izango ote da posible estatuak beste era batera eratzea, nazio burujabeen federazio gisa edo? ■

Aisialdian balioetan hezteko ikastaroak Bizkaiko Urtxintxa Eskola

- Aisialdiko begiralea
- Aisialdiko zuzendaria
- Jendarte kultur dinamizatzailea
- Hezkidetzan aditua
- Feminismoan sakontzen
- Haurren parte-hartzean murgiltzen
- Aniztasun funtzionala aisialdian aditua
- Kulturarteko hezkuntzaren hastapenak

+IKASTARO LABURRAK

*Zure beharretara egokitutako
trebakuntza ere eskaintzen dugu!

**MATRIKULA
IRAILAREN 1ETIK 30ERA**

www.urtxintxaeskola.eus
urtxintxa@urtxintxaeskola.eus
94 432 04 45
Zabalbide 26, behea 48006 Bilbo.



Bizkaiko
urtxintxa
eskola

An illustration showing several hands in different colors (purple, yellow, blue) working on a large piece of red fabric. The hands are using red thread and needles, suggesting a sewing or embroidery activity. The background is a textured, wavy pattern in shades of brown and red.

PUNTADAZ PUNTADA TXIKITIK ERAGITEN ARGIA EGUNA

URRIAK 1 ZAPATUA, ONDARROAN

Ibilbide gidatua, Argiazaleen topaketa, herri eragileen azoka,
herri bazkaria, jolas hezitzaileak, bertsoak, kontzertuak...

GROENLANDIA IZOTZA ETA HARRIA

Australiaren ostean planetako uharterik handiena da Groenlandia, bertako groenlandiera hizkuntzan Kalaallit Nunaat edo "Kalaallit-en Herria". Kalaallitak Inuit herria dira. Dani Blancoren argazki erreportajea.





Groenlandiaren %80a izotz eremu zabal da. 56.480 lagun bizi dira bertan 2013ko datuen arabera, ia denak kostaldeko herri txikietan. Herritarren %85 inguruk beren burua Inuit gisa identifikatzen du.

Erik Gorria vikingo norvegiarrak eman zion uharteari Groenland izena (lurrealde orlegia), ustez kolono gehiago erakarriko zituelako. Estatuan bere semea ageri da.







Etengabeko mugimenduan daude irla estaltzen duten izotz geruza erraldoiak, arkaitzetan orbain txundigarriak utziz. Behinola izotzak estalitako eremuetan forma harrigarriak sortu dira. Beste harrien gainean kokatutako harri erraldoiak ikus daitezke.

Wikileaxen arabera, AEBek bertako baliabide naturalak ustiatzeko interes handiak dauzkate. ■



Markina-Xemeinen euskaraz bizi gara! Heldu euskarari

Diru-laguntzak euskara ikasleentzat:

**Euskalduntze oinarrizko maila doan, herriko
euskaltegian bada.**

Etorkinentzako ikastaro bereziak.

Gainerako mailetan %80ko diru-laguntzak.

Aurtengo nobedadea:

**Monitoretza ikastaroa
euskaraz eta herrian
(diruz lagunduko da).**

Markina-Xemeingo Udala

Goiko Portala 3

48270 Markina-Xemein (Bizkaia)

Tel: 946 169 193

elena@markina-xemein.eus

markina-xemein
udala



Izaro Arbe Izagirre

ESKEMAK APURTU DITUEN PUNTISTA

“Ez amestu bizitzie, bizi zure ametsak!” dio Markina-Xemeingo frontoi alboan dagoen muralak. Izaro Arbe zesta-punta jokalariai parte hartu zuen muralean eta ongi barneratua du leloa: ezkerria, atzelaria eta gizonen munduan emakume bakarra urte luzez, bere lekua irabazi behar izan du frontoietan.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Entrenamendu eguna du gaur Arbek. Xistera urez busti du, zumitzak hezetasuna behar duelako, apurto ez dadin. Etxeko komunean gordetzen duela kontatu digu. “Mimoz zaindu beharra dago”. 25 ordu inguruko artisau-lana du xisterak eta gaur egun, apenas dagoen saskigilerik, denera bost bat omen dira Euskal Herrian, ofizioa ikasiko duten belaunaldi gazteek lekukoa hartzea behar dutenak. “Karbonozko saskiak probatzen ari dira orain, material berriak aztertzen...”. Kaskoa jarri eta frontoira egin du salto, bi mutiko eta entrenatzailea ditu zain. Tamainaz txikia da Arbe, baina hazi egiten da jokalekuan, sekulako zartakoak eman dizkio pilotari. Ikuskizuna itzela da harmailetatik; diotenez, munduko joko bizkorrena da, pilotak hartzen duen abiaduragatik. 22 urteko markinarra ere txikitatik liluratu zuen zesta-puntak. “Pilota xisterarekin hartzeko modua, ateratzen duen hotsa, eskuz egindako saskiak duen xarma, bertako kirola izatea... Beste kirolen aldean berezia da zesta-punta”.

11 urterekin jantzi zuen xistera lehenengoz, Jokin Arbe neba nagusia jokatzen ikusteak kitzikatuta. Gurasoen laguntzaz, Markina-Xemeingo klubean eman zuen izena, eta harrera ona egin zioten. Neska bakarra izanik, ordea, oz-

topo ugari izan ditu bidean. “Frontoia eremu erabat maskulinizatu da eta ‘zer egiten du honek hemen?’ izan zen besteengandik hasieran jaso nuen inpresioa. Era guztietako jendea dago eta denetik entzun behar izan dut”. 14 urteen bueltan, indar kontuetan mutilekiko alde nabaritzen hasi zenean, txapelketa bat jokatu ostean antolatzaileak zera esan zion: “Zuk dagoeneko mutilekin ez, neskekin aritu beharko zenuke”. Minduta gogoratzen du Arbek: “Beste neskarik ez zegoen eta! Ni bota nahian ari zen, ala? Baina adin horrekin ez daukazu halakoei aurre egiteko nahikoa tresnarik. Bakarrak zaude, besteen berdina egiteko ahalegin bikoitza egiten, eta baloratu ordez horrelakoak entzun behar”. Aurkarien ahotik “neska baten aurka jokatu behar al dut?” aditza ere egokitu izan zaio, batzuk deseroso sentitzen direlako, neska baten kontra jokatzeagatik edota galtzeagatik. “Baina orokorrean, nire inguruan behintzat, oso ondo eraman naiz jokalariekin”, nabarmendu nahi izan du.

Batzuetan bakarrik sentitu arren, etxeko babesa funtsezkoa izan da. “Neba izan dut beti alboan, beti erakusteko prest, batik bat hasierako aurpegi eta komentario itsusien aurrean”. Egun, Jokin Arbe profesional dabil AEBetan, pasa den urtarriletik.

Gainera, ezkerria

Indarra ezaugarri garrantzitsua da zesta-puntan eta une batetik aurrera mutiko gazteagoen kontra hasi zen markinarra, partidu parekatuak jokatzeke. Nagusiena izateaz gain, txapelketa ofizialetan parte hartzeari utzi behar izan zion, kategoriak eskatzen zuen adinaz kanpo zegoelako, eta Federazioak ez zuelako ezer egin horri irtenbideren bat aurkitzeko. Txikiekin entrenatu eta entrenatu, partiduen pizgarririk gabe, “motibazio aldeetik gogorra izan zen”, dio. Bolada batean, beste neska bat aritu zen berarekin, baina panorama ikusita laga egin zuen azkenean. Arbe, haatik, ez da lagatzen duen horietakoa, batez ere aintzat hartuta hasieran zenbat kostatu zitzaion: ezkerria da bera, eta derrigorrezkoa da eskumaz jokatzea, saskia ezin da ezker eskuz hartu; urtebete eman zuen jo eta su, eskuin eskuz jokatzen ikasi zuen arte. Ezkerrez jokatu duenik egon da, baina arauetan ezer jartzen ez badu ere, ez omen da halakorik onartzen. Galdetu diogu ea ez al zen saiatu ezkerrez jokatzen. “Neska eta gainera ezkerrez! Baina zer nahi duzu, zuzenean frontoietatik bota nintzateka?”, erantzun du barrez.

Motibazioz pattal zebilen sasoiaren, zesta-puntaz gain palari ere ekin zion. Azken finean, Emakumea Pilotari bezalako



proiektuei esker, frontoietan pala da emakume gehien biltzen dituen modalitatea. Azpiegiturak, txapelketak eta erraztasunak jartzeak emaitzak ematen dituelako. “Esanguratsua da, gaur egun palaz ari diren emakumeen %80tik gora beste modalitate batzuetatik eratorritakoak dira. Elitean dabiltzan emakumezko palista asko aurrez eskuz aritutakoak dira”. Arbe ohartu zen, baina, “benetan betetzen ninduen zesta-punta zela, eta bidea egin nahi banuen nik neuk egin behar nuela, inork ez zuela nigatik egingo”. Pala utzi, zestaren aldeko apustua egin eta jarraitzea erabaki zuen, egoerari buelta emateraino, belaunaldi berriei bidea irekiz.

» “Mutilekin ez nukeela aritu behar esan zidan, baina 14 urterekin ez duzu aurre egiteko nahikoa tresnarik. Bakarrik zaude, besteen ahalegin bikoitza egiten, eta baloratu ordezkialakoak entzun behar”

Desmotibazioetik indartsu bueltatzera

“Pixkanaka, nire esparrua irabazi dut. Kostata izan da, baina lortu dut, eta Markina-Xemeinen bat gehiago naiz frontoian. Nire ibilbidearen balorazioa egin beharko banu, esango nuke nahi dudan horri uko egin ez dion pertsona naizela”. Eta ez da gutxi. Gasteizen Irakaskuntza ikasi ostean, herrira gogotsu itzuli zen Arbe: egun, astean bi bider entrenatzen du, lagunarteko partidua du ostiralero, adin ugari mutilekin (11, 15, 18...), eta Xistera proiektuaren baitan emakumeen arteko txapelketak antolatzen hasiak dira –hiru egin dituzte dagoeneko-. Izan ere, jokalaria frantsesak eta katalanak badira, eta horiekin topa-

» “Kostata, baina nire esparrua irabazi dut, Markina-Xemeinen bat gehiago naiz frontoian. Nire ibilbidearen balorazioa egin beharko banu, esango nuke nahi dudan horri uko egin ez dion pertsona naizela”

ketak egin izan dituzte. Urri amaieran, denak elkartzea da asmoa, Euskal Herrian. Katalunian hamar bat emakumetik bira jaitsi dira puntistak, baina Frantzia gora egin du kopuruak, 15 bat ari dira uneotan. Iaztik, helduen mailan beste emakume bat ari da Donostian: Leire Arribas. Eta garrantzitsuena, neska jokalarien harrobia sortzen ari da, tartean Izaro Arbe beraren entrenatzaile lanari esker.

Gainbehera dagoen modalitatea da zesta-punta. Euskal Herriko elkarte puntistak batu eta Xistera proiektua sortu dute, kirol hau indartu asmoz. Hiru adar nagusi ditu ekimenak: afizionatu mailan txapelketak sustatzea, emakumeen parte-har-

» “Emakumezko erreferentziak izatea oso inportantea da: umeak entrenatzen hasi nintzen, aurretik gizon bat zuten entrenatzaile, ni jarri eta bi astera 0 neska aritzetik 14k eman zuten izena”

Ezkerreko argazkian, entrenatzen. Ezkerra da Arbe, eta urtebete eman zuen jo eta su, eskuin eskuz jokatzen ikasi zuen arte. Eskuineko irudian, Arbekin eta Xistera projektuko presidentearekin batera, Markina-Xemeingo Bekobentako eta frontoi handiko taldeetako umeak. Bekobentan 20 bat dira Izaro Arbek entrenatzen dituen gazteak, horietatik 14 neska inguru.



IZARO ARBEK UTZIA

tzea bultzatzea, eta ikastetxeetan haur eta gazteei zesta-puntaren berri ematea. Hirugarren adar horretan buru-belarri ari da markinarra, eta pauso handia dela dio: “Ikasturte honetan hamabi herritara joango gara eta horrek esan nahi du ikasle pila batek ezagutuko duela kirol hau. Umeek dena probatu ahal izatea da helburua, eta erreferentzia emakumezkoa izatea ere oso inportantea da: duela hiru urte, umeak zesta-puntan entrenatzen hasi nintzen Durango eta Berriatuan; aurretik gizon bat zuten entrenatzaile, eta zero neska ariztetik, ni jarri eta bi astera 14 neskek eman zuten izena kolpean!”

Arbek berak erreferente gutxi izan ditu, emakumerik apenas aritu delako zestalari. “Probatu emakume ugari probatuko zutela pentsatzen dut, baina ez zuten aurrera egin. Kurioski, euskal pilotan emakumearen sarbidea zesta-puntaren bidez izan zen: Maria Unzueta eibartarra zesta-puntan aritu zen XIX. mende bukaeran, jokalaria ona zen eta profesional aritzeko proposatu zioten, baina aitak debekatu egin zion”.

“Orain, zesta-puntan aritu nahi duen 8 urteko neska ez dago bakarrik”

Durango eta Berriatuan umeei zestan irakatsi ondoren, euskal pilotako entrenatzaile titulua atera eta iaiztik Markina-Xemeinen dihardu Arbek. Bekobenta ikastetxean dabil, 6-12 urte arteko gazteekin. 20 bat dira, horietatik 14 neska inguru. “Asmoa da pixka bat ikasten dutenean frontoi handira joatea”. Guztira 100 bat zestalari ari dira herrian.

Partidua bota eta etxera, Arbek ez du halako saiorik gidatu nahi. Zesta-puntan aritu, kirolari lotutako jolasak egin, talde giroa sortu... Jarduera fisikotik harago,

baloreak lantzen saiatzen da entrenamenduetan. “Denak batera aritzen dira, hala behar du Lehen Hezkuntzan: neska eta mutil, jatorria dena delakoa, adinak nahastuta... Elkarbizitza lantzeko tresna aproposa da kirola, harremanik ez duen jendea elkarrekin aritzeko aitzakia, eta hori guztia jorratzen ahalegintzen naiz, ez dadila egon mutilik esango duenik ‘nik ez dut neska batekin jolastu nai’”.

Gustura dago bizkaitarra, esfortzua fruituak ematen ari dela nabaria da eta neskaz ere osatutako taldea itxaropenez ikusten du: “Orain, zesta-puntan aritu nahi duen 8 urteko neska ez dago bakarrik, taldean neska gehiago ditu, eta taldea egonik, errazagoa da etorkizunean jarraitzea”. Pozarren dago Izaro Arbe, entrenatzaile lanak bete egiten duelako,

eta jokalaria moduan gustura dabilelako. Zenbat aurreiritzi apurtu dituzu? “Aurreiritziak ez dakit, jendearen eskemak apurtu ditut, hori bai. Denetik egongo da: batzuek esango dute, ‘zer ari da hau zestalari?’, eta beste batzuek berriz, “aupa Izaro! Nik egin ez nuena zuk egin duzu”. ■

► Irakurri artikulua ingelesez, argia.eus/english helbidean.

ARGIA EGUNEAN ZESTALARI

Urriaren 1ean, Ondarroan ospatuko dugu aurtengo Argia Eguna, *Puntadaz puntada, txikitik eragiten* lelopean. Eskualdeko eragileek hartuko dute parte egitarauan, eta jolas hezitzaileak egingo ditugu goizean, tartean zesta-puntari lotutako jarduerak, Izaro Arbek gidatuta. Saskia lotu eta probatzeko aukera izango dute gerturatzen direnek; jolasak ere prest ditu puntistak, zapiaren jolasa adibidez, baina zapia beharrea xisterarekin pilota hartuz. “Jendeak zesta-punta ezagutu dezala, hori izango da helburua, eta erakustaldi gisa partidutxoak ere egin daiteke”.

11itzulpen

EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN

INGELESERATIK
EUSKARARA
ZUZEN

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:
11itzulpen (34) 699 433 121

BIZITZEKO, GAINONTZEKO ANIMALIAK USTIATU NAHI EZ DITUEN JENDEA

Begano eta aktibista maila berean direla diote erreportaje honetako bi protagonistek. Biak dira Donostiako Askekintza taldeko kide, eta animaliekiko elkartasun jarrera gisa definitzen dute eurek beganismoa. Mugimendu honen hastapenetako lau *frikietako* bi direla diote, harrotasunez.



Irati Sarasua Arabaolaza
@iratisarasua

Jaiki eta soja esnez eginiko kafesnea gosalzten du egunero Xabi Arratibelek. Horri gehitzen dizkio gurin pittin batekin goxatutako tostadak eta fruta. Eguerdian tofua, soja testurizatua eta tomatez eginiko saltsa botatzen dio pastari. Eta eguna entsalada edo pure bat janda amaitzen du. Beganoa da, eta horrek protagonistaren eguneko ia momentu guztietan du eragina; begano izanik ez du animalietatik datorren ezer jaten ezta erabiltzen ere, gainera, aktibista ere bada, eta, ondorioz, bizitzako esparru guztietara zabaltzen du jarrera hori.

Ekaitz Ibañez da, Donostiako Animalien Askapenerako Mugimenduan, Askekintza taldean, Arratibelekin lan egiten duen bigarren protagonista. Haren hitzetan "gainontzeko animaliekiko elkartasun jarrera" da beganismoa. Berak ere argi du beganoa eta aktibista maila berean direla; arazoa gainontzeko animaliek egun bizi duten egoera dela dio, "oso larria", haien ustez, egunerokotasunean objektu edo baliabide bat bailiran erabiltzen ditugulako. Tomate edo egur zati bat bezala erabiltzen ditugula uste du berak. Euren bizitzak aktibismo horretara bideratzen dituzte biek. "Per-



tsionala politikoa' da esaldia erabiltzen da feminismoan, eta gurean ere berdin".

Ibañez duela bi urtetik da beganoa, eta Arratibel duela bostetik. Animaliak eurengandik oso gertu sentitu izan dituzte biek beti, eta bien kasuan gertutasun edo enpatia hori begano izateko erabakigarria izan bazen ere, nabarmendu dute ez dela beti horrela izaten, badagoela enpatiatatik baino justiziatatik egiten duenik ere. Arratibel aurretik begetarianoa izan zen eta urrats bat bestearen atzetik eman zuen. Haren ustez, beganoa jarrera politikoa duena da, eta begetarianoa *de facto* animalien produktuak jaten ez dituen, dietara soilik mugatzen dena.

Jarrera politikoa

"Arraro sentitzen gara beganismoa elikaduraren tiraderan sartzen dutenean, uste dugulako justizia sozialaz ari garela. Guretzat, bi hitzetan, jarrera politikoa da", aldarrikatzen du Arratibelek. Elikaduraren alorra biktima gehien dituen dela ziurtatzen dute, baina, era berean, beste hainbat esparruri ere erreparatzen diote, eta euskal jendartea, gainontzekoak bezala, espezia dela pentsa-

tzen dute. Herrietako festetan ere jarria dute begirada; azken hiru urteotan "Festak ospatu animaliak askatu" izeneko kanpainari ekin diote, Euskal Herriko festetan animaliekin egiten den erabilerara salatu asmoz. "Gure gastronomiak dituen karga kulturalaz ere zer esanik ez, animaliak konfiskatzea dakar, txuleta idolatratzen da, esaterako", dio Arratibelek.

Askotan mundu irreal batean bizi dela sentitzen du Ibañezek: "Begano izanik beste modu batera ikusten dut guztia". Harategitik pasatzean gorpuak zintzilik ikusten dituela nabarmentzen du, harentzat ez direla haragi pusketak, bizirik egon nahi zuten izaki batzuen gorpuak baizik. "Askotan ingurukoak beste norbait jaten ari direla ikusten dut eta deskonektatzea kosta egiten zait, niretzat norbanakoak direlako, ez objektuak". Hainbatetan maite dituen pertsonak berak eginiko borroka zabor-ontzira botatzen dutela sentitzen du: "Asteburu txerri baten bizitza salbatu nahian pasatzen duzu, etxera iritsi eta platerkada bat txerriki jaten ari dira etxeok; imajinatu zer sentitzen dugun!". Asteburu bateko bizipenak kontatu ostean ere,

nabarmetzen dute eurak une gogorrak bizi arren, biktimak ez direla eurak, animaliak baizik.

Ezjakintasuna

15 urte besterik ez zituen Ibañezek Askekintzan lanean hasi zenean: “Hel-tzen joan naiz, Askekintzan konpromiso gehiago hartzen joan naizen neurrian, eta hori egunerokotasunean islatzen da”. Uste dute pedagogia lan handia dagoela oraindik egiteke, “ezjakintasun handia” dagoelako. “Jendeak ez daki kontsumitzen ari den gorpu hori nondik datorren, ez injustizia bat denik, ezta atzean dagoena espezismoa denik ere”. Horregatik, ezjakintasun horri erantzun asmoz, eurak Askekintzan egiten duten aktibismoaren zati handiena horretara bideratzen dute, kontzientziatziora.

Beganismoa zabaltzen ari dela uste badute ere, arduratuta daude hartutako norabidearekin. “Beste hainbat mugimendu sozialekin gertatutakoa ari zaio pasatzen, kapitalismoak funtsean dituen oinarri politiko eta etikoa kendu eta dizkio eta bereganatzen eta negozio bihurtzen ari da azken urteotan”, salatu du Ibañezek. Argaltzeko eta osasuntsu egoteko dieta gisa saltzen ari direla argi dute. Zalantza izpirik gabe, osasungarria badela diote protagonistek, baina jarrera politiko hori deuseztatuta ikus-teak arduratzen ditu.

Hainbatek esango dute haragia eta arraina jatea beharrezkoa dela gizakia-
rentzat. Askekintzako bi lagunek ezetz diote. Euren esanetan, ikerketek argi erakusten dute hori, eta ziurtatu dute bizitzako etapa guztietan izan litekeela begano; haurtzarora eta haurdunaldia dira aipatu dituzten bi adibide. Gogor-
arazi dute animalia jatorria ez duten produktu asko daudela; besteak beste, barazkiak, frutak, fruitu lehorrak, zerealak, sustriaiak edota lekaleak. Euren kasuetara itzulita, Ibañezek, osasun arazo batzuk medio, dieta makrobiotikoa egiten du, eta bi dietak, makrobiotikoa eta beganoa, uztartzeko arazorik ez du izan. Nabarmendu du beganoa denetik osasunez hobeto dagoela, eta gaineratu du haren nutrizionistari beganoa zela esatean lana errazten ziola erantzun ziola (irribarretsu kontatu digu pasarteak). Arratibel berriz, bizitza osoan izan da kirolaria, arraunlaria zehazki, egun ere bizitza oso aktiboa du, eta begano iza-teak ez dio jardunean oztoporik sortu.



Aurtengo udan hainbat herriko festetan azaleratu da animalien erabilerari buruzko eztabaida.

» **XABI ARRATIBEL, ASKEKINTZA:**
“Arraro sentitzen gara beganismoa elikaduraren tiraderan sartzen dutenean, uste dugulako justizia sozialaz ari garela”

» “Zaila da gizarte espezista aldatzea. Beste emantzipazio borroketan zapaldua dagoena da subjektu iraultzailea, baina animalien kasuan bestela da, beraz, gainontzekoon esku dago egoera aldatzea”

» Mugikorreko *Happy Cow* aplikazioarekin, munduko edozein lekutan dauden jatetxe beganoak aurkitu litezke

“Ez da guretzat, besteentzat da”

Gizaki jaiotzeagatik ditugun pribilegio batzuk albo batera uztea da, haien esanetan, beganismoa. “Argi izan behar dugu ez gaudela gu erdigunean, beganismoa ez dela guretzat, animalia guztiak errespetatzeko dela, eta gure pribilegioak alde batera uztea dela. Ez dela guretzat, besteentzat dela”. Ibañezek argi du. Nabarmendu dute hasieran etxetik kanpo jateko zailtasunak topatzean, ez zirela horiei aurre egiteko gai izaten. “Aukerarik ez bazegoen, nire printzipioak alboratu eta tortilla jaten nuen”, dio Arratibelek. Baina denborarekin, kontzientzia politikoa hartzean, horri ere aurre egin diote. Nahiago dute gose apur bat pasatu edota etxean prestaturiko janaria ontzian bueltaka ibili animalia bat kontsumitu baino. Eta galdera bat luzatu du Arratibelek: “Niretzat begano izatea konplikatua bada zer izango da baserrian dagoen animalia batentzat?”. Bera Euskal Herriko festa ezagunetan ogi hutsa jaten egon izan da, beste aukerarik ez duelako aurkitu. Hala ere, geroz eta erraztasun gehiago dituela dio, bereztzat garrantzitsua dela jakinik, lagunek ere horretan laguntzen baitiote.

Ibañezek bere istorio bitxiak kontatu dizkigu. Askotan irteten da parranda aurreko afarira etxean prestatutako tupperra besapean hartuta. Gero, zuhaixka artean gorde, eta parranda amaitzean berriro hartu eta etxerako bidea egiten du.

Baina geroz eta aukera gehiago daudela ziurtatzen dute. Jarrera hau zabal-



Askekintzak eginiko kanpaina, Donostian otordu beganoak egiteko dauden aukerak azaltzen dituen.

tzen ari dela uste dute eta horren adibide da biek mugikorrean duten aplikazio bat: *Happy Cow*. Munduko edozein lekutan egonik ere, jateixe begano bat aurkitu liteke aplikazioak duen maparen bitartez. Gure inguruan geroz eta jateixe gehiago daudela nabarmendu dute; "Donostian aukera asko daude, geroz eta gehiago. Edozein beganok erraza du lagunekin atera eta nahi dituen bokadilo eta platera jateko", esan du, baikor, Ibañezek.

Beste alor batzuetan ere eragiten du begano izeateak. Jantzeko edota produktuak erosteko orduan, adibidez; gorbata eramaten du egunero Arratibelek lanera, eta zetazkoak ez direnak topatzea ez omen da lan makala izaten. Esparru horretan ere urrats batzuk eman dira azken urteotan, animalia jatorri gabeko produktuak saltzen dituzten dendak zabaldu baitituzte.

Hasierako lau frikiak

"Kontziente izan behar dugu historian emandako aldaketak lau frikik hasi ziztuztela", dio Ibañezek barreari ezin eutsita. Hasierako lau friki horiek diren sentazioa dute, baina hori ere harrotasunez daramate. "Emakumeak euren autonomia aldarrikatzen hasi zirenean, imajinatzen dut, ez zutela pentsatuko egun feminismoak hainbesteko presentzia izango zukeenik gurean". Aurreko mendean sorturiko mugimendua da beganismoa, beraz, "berria" dela diote, eta hastapenetan daudela, baina urrats batzuk egin dituztela ere bai. Arratibelek dio "zaila" dela gizarte espeziata aldatzea, baina gai honetan esku hartu beharra dagoela: "Beste emantzipazio borroketan zapaldua dagoena da subjektu iraultzailea, baina animalien kasuan bestela da, beraz, gainontzekoon esku dago egoera aldatzea". ■



OSASUNTU JAN NAHI DUZU?

- Elikagai ekologiko eta integralak
- Eguneko menua
- Etxerainoko zerbitzuak

JATETXE MAKROBIOTIKOA

Intxaurren kalea, 52
DONOSTIA
Tel.: 943 288 246



sukaldaritza
orekatua

aramakostatua

Herriko plaza
20248 Arama-Gipuzkoa

info@aramako-ostatua.com
www.aramako-ostatua.com
Tel. 943 888 953

GARRAXI

DENDA BEGETARIANO
Errege katolikoak 9
DONOSTIA
943906305
garraxidenda@gmail.com
garraxibegetariano.eus

JATETXE BEGETARIANO
Tejeria, 9 - Egia
DONOSTIA
943275269
sgarraxi@yahoo.es
garraxibegetariano.eus

Aukera zabala beganoentzat

RUTENIERA, TXIKITASUNETIK ARGITARA IRTEN NAHIAN

Danubio ibaia lagun, serbiarren eta hungariarren itzalean bizi izan dira ruteniarrak aspalditik. Serbia iparraldeko Vojvodina eskualde autonomoa da haien etxea eta harrotasunez eusten diete beren ohiturei eta mintzairari.



Dabi Piedra

Hizkuntza eslaviarren entsaladan, osagirik ezezagunenetako bat da ruteniera edo rusyn hizkuntza: Batzuetan ahaztua, beste batzuetan landa giroko dialektotzat joa, ia beti baztertua. Vojvodinan ofiziala da eta badira rutenierazko eskolak eta hedabideak. Hala ere, beste hizkuntza txiki askok bezala, transmisioa du kezka iturri.

Zinez txikia da ruteniera, 15.000 hiztunen langara ez baita heltzen, baina herri batzuetan ia hizkuntza bakarra da, adibidez Ruski Kerestur-en. Kroazian eta Kanadako diasporan ere badira hiztunak. Era berean, Ukraina, Eslovakia eta Poloniaren arteko mugan beste ruteniar multzo bat bizi da, etnia berekoa bai, baina hizkuntza ezberdinekoa. Horregatik, adituek "Panoniako ruteniera" izena eman diote Vojvodinakoari, iparraldeko senideen mintzairatik bereizteko.

Landa eremuan rutenierak arnasgu-neak baditu ere, bestelakoa da egoera eskualdeko hiriburu Novi Saden, Serbiako hiri handienetan bigarrenen. "Batzuk beldur dira Novi Saden rutenieraz hitz egiteaz", dio Slavko Njaradi ruteniarrak. Ehunka batzuk badira Novi Saden, baina kalean serbiera da nagusi.



Ruski Kerestur herrian ia hizkuntza bakarra da ruteniera.

MAPIO.NET

Hiriaren erdiguneko Knjižara Most liburu-denda dotoreko arduradun Alexander serbiarrak dioenez, bezeroek inoiz ez diote rutenierazko libururik eskatu. Ordenagailuan begiratu behar izan du hizkuntza horretan alerik duen jakiteko: Gramatika ikasteko jarraibide bat, horixe bakarra. Eskualdeko hizkuntze-

tatik gutxien entzuten duena dela dio Sanja ostalariak, "hungariera eta eslovakiera entzutea ohikoa da, baina ruteniarrak herrietan bizi direla uste dut".

Beldurrak ahaztu eta ruteniera hiriko bizitzaren parte izan behar dela dio Slavko Njaradik. "Inoiz ez dut arazorik izan Novi Saden nire hizkuntza erabiltzeagatik, beste etnietakoek errespetatu egiten gaituzte". Ruteniarrei erraztasunak ematen dizkiete beren hizkuntzan ikas dezaten, haur eskolatik unibertsitatera arte. Ruski Kerestur-eko (Novi Sadeetik 70 km-ra) rutenierazko lizeoan ikasten duten neska-mutilek doan dituzte logela eta jatekoa.

Etxean erakutsi zioten Njaradiri ruteniera, harro erabiltzen du eta pozik dago gurasoek hautu hori egin zutelako. Aitzitik, jarrera hori ez dela ohikoa dio, transmisioak kezkatzen du: "Guraso askok ez diote abantailarik ikusten rutenierari, lanpostua aurkitzeko ez baitu aukerarik ematen". Irtenbidea hezkuntzan dagoela uste du Njaradik: "Ikasgai baliagarriak rutenieraz ematea da gakoa, matematikak eta ingelesa kasu. Folklorean ondo dago, baina gai praktikoak ere rutenieraz irakasteko ahalegina egin behar dugu".

VOJVODINAKO HIZKUNTZAK

Kulturen arteko bidegurutzean dago Vojvodina eta, ondorioz, etnia eta hizkuntza ugariren bizileku da. Bi milioi biztanledun eta Euskal Herriaren hedadurako eskualde autonomo horrek sei hizkuntza ofizial ditu: serbiera, hungariera, eslovakiera, errumaniera, kroaziera eta ruteniera. Hartara, eraikin publikoetako eta beste zerbitzu batzuetako kartel eta oharretan, ez da arraroa sei hizkuntzak batera ikustea.

Martica Tamaš, 'Ruske Slovo' aldizkariko zuzendaria

"Arrakasta izan duten ruteniarrei buruzko albisteak oso estimatuak dira"

Ruteniera hutsean argitaratzen da *Ruske Slovo* aldizkaria. Batik bat harpidetza bidez zabaltzen da eta herri batzuetan boluntario sareak eratu dituzte banaketarako. Txikitasunean, sendo eusten dio: Jugoslavia ohia, Balkanetako gerrak eta NATOk Novi Saden aurka egindako bonbardaketak ezagutu ditu. Martica Tamaš zuzendariak ongi etorri beroa egin dio ARGIAri aldizkariaren egoitzan.

Nolakoa da *Ruske Slovo*?

1945etik argitaratzen da. Gainera, umeentzat argitaratzen dugun *Zagradka* aldizkaria 1947tik dago martxan, beraz datorren urtean 70 urte beteko ditu. 1972tik, hilerok ateratzen dugu gazteei zuzendutako *Mak*. Literaturaz eta kulturaz arduratzen den beste argitalpen bat ere badugu. Belaunaldi berrien ohiturekin bat egiteko, webgunea ere badugu. Ruteniarren informazio agentzia baten gisakoa da webgunea, gure komunitatearentzako erreferentzia, egunero albiste laburrak idazten baititugu.

Bestalde, ruteniar idazleen liburuak argitaratzeko konpromisoa dugu, aspaldi hasi ginen horretan eta dagoeneko 500 liburu inguru kaleratu ditugu, nobelak eta beste.

Novi Saden duzue egoitza, gerraren ondorioak jasan dituen hirian. Jugoslavia desagertu ondorengo gatazkek nola eragin zioten proiektuari?

Diru aldetik larri ibili ginen. Herritar arruntek bezala, geuk ere sufritu genituen gatazken ondorioak eta aldizkariaren ohiko kalitateari eusteko arazoak izan genituen.

Vukovar inguruan [Kroazia ekialdean] ruteniarrak bizi dira eta hangoaz asko idatzi genuen, gerrak bete-betean jo zuelako [ia hiru hileko setioa egon zen 1991n]. Astero bidaltzen genien aldizkaria, Vukovarreko ruteniarrak jakin zezaten ez ginela haietaz ahaztu. Harro gaude orduan egindako lanaz.



DABI PIEDRA

Nolako babes ematen dizue Vojvodina-ko gobernu autonomoak?

Gure aurrekontuaren zati handi bat ematen digute erakundeek, ondo babestuta gaude. 2003ra arte, gobernuak zuzenean ematen zigun laguntza, baina urte hartan gutxiengoentzako batzorde bereziak osatu ziren. Hala, gobernuaren zuzeneko kontrolik gabe lan egin dezakegu. Agintari batek estutzen bagaitu, batzordeak gure alde egiten du. Azken urteotan kazetariei gero eta presio handiagoa egiten zaie botereguneetatik, beraz gurea ez da abantaila makala.

Zenbat irakurle ditu *Ruske Slovok*?

Serbian 14.500 ruteniar bizi gara eta astero 2.300 ale argitaratzen ditugu. Gure merkatua murrizta denez, zenbaki onak dira. Gainera, *Zagradka*-ren beste 600 ale ateratzen ditugu astero.

Belaunaldi berriak gogoan dituzue.

Bai. Vojvodinako hainbat eskolatan ikasgai batzuk rutenieraz ematen dira eta gure aldizkaria maiz erabiltzen dute. Ipuinak eta idazlanak bidaltzeko eskatzen diegu eta gero argitaratu egiten ditugu. Gainera, haur eskoletako umei zuzendutako zatia du *Zagradka*-k, irudiekin eta irakurtzen ikasteko istorio laburrekin.

Ruteniarrak nola hartzen dute zuen produktua?

Herri batzuetan, biztanleen %90 rutenieraz bizi da, beraz ohituta daude dena beren hizkuntzan egitera, naturalizat jotzen dute, baina egia da oso pozik hartzen dutela haien herriari buruz albisteren bat idazten dugunean. Novi Saden, aldiz, ruteniarrak tantatxoak dira serbieraren itsasoan eta hor mesede handia egiten du aldizkariak. Arrakasta izan duten ruteniarrei buruzko berriak oso estimatuak dira, ruteniarrak gauza handietarako gai direla ikusten dutelako. Gure kirolarien lorpenek ikusmina sortzen dute, adibidez Mihail Dudaš atletaren kasuan [Rioko Joko Olinpikoetan parte hartu du]. ■

andoaINDARRA
euskaraz
eguna

IRAILAK 24

Egun osoan Andoaingo Goikoplazan:

GOIZEAN, 10:00etan hasita:

- Umeentzako lantegiak
- Neska eta mutilen pilota partidak
- Diana herrian zehar
- Argazki-rallya

EGUERDIAN

- Marmitakoa
- Patata tortilla lehiaketa
- Fino's Band
- Dingo!!

ARRATSALDEAN

- Andoaindarrak izar finala
- Dantza
- Kantu kalejira
- Bertsolariak
- EROmeria
- BasqExtremFolk
- Zo-Zongo!!! Batukada

www.andoaindarraeuskaraz.eus

Gurera bildu eta EUSKARAZ KIRIBILDU!!

ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalizazioa
Lanaldia

Joseba Otondo, Baztango alkatea

“ALTERNATIBA SOZIALA PERTSONARENGAN GEHIAGO PENTSATUZ LANDU BEHAR DUGU”

Elizondo, 1977. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna, Leioako EHUUn. Xorroxin irratian eta Xaloea telebistan kazetari izana. *Gaur8n* eta *Nafarkarian* aritutakoa. Sortuko kidea da. Baztango alkatea EH Bildutik: “Borroka sozialak, intsumisioa, Itoizko urtegiaren aferak eta lurraren defentsa bizi izan ditut. Horiek balio sisteman zuten garrantzia, beren kutsu errebolatari antikapitalista eta alternatiboa ezagutu ditut, baita gatazka politiko bera ere. Errepresio historiko berezi baten testuinguruan hazia naiz. Herrigintzatik heldu naiz alkate kargura”, erran digu solas oparoaren abiaburuan.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: IRANTZU PASTOR

Ekainean urte bat bete zenuen Baztango alkate karguan. Egin iezaguzu orain arteko agintaldiaren balorazioa.

Neuretzat aberasgarria izan da. Arlo politikoan, berriz, EH Bildu udalera heldu zen programa politiko batekin, herritarrek defenditzeko, beraiek nahi duten moduan. Herriko hautetsiak gara eta herriari zor gatzazkio, gure eguneroko ingurunearen zordun gara. Gure harremanak denekin lantzen ditugu, akordioak eta desadostasunak izan dira. Iragan urteko ekainean kargua hartu eta abuztuan alkate gaitzetsia izan nintzen, Aroztegia-ren [Lekaroz herriko proiektatutako konplexu urbanistikoa] gaia dela eta. Aurtengo aurrekontuak, lehenbizikoz Baztanen, ez ziren onartu izan lehen itzulian, bigarreanean bai.

Geroa Baik Aroztegia proiektuan duen menpekotasunagatik, jarrera oldarkorra hartu du Baztango udalaren kontra, UPN eta Auzolan-ekin bat eginez, Baztango jarduera instituzionala trabatuz. Hala ere, estrategikoak diren gauzetan aitzinera egin ahal izan dugu, Baztan artikulatzen duten ideiak, bere aspirazio kolektiboak eta balioak, guk orde-

katzen dugun programa progresista eta euskaltzalearekin bat egiten dutelako.

Aroztegia proiektuan Geroa Bairekin ezin moldatuz ari zarete.

Bai. Hasteko, Geroa Baik bere aldeko jarrera argudiatzen du proiektua lehenagotik datorrelako. Hala izanik ere, Nafarroako Gobernuaren lurralde antolaketa, administrazio eta ingurugiro sailek Aroztegia gelditzeko aukera izan zuten. Hauteskunde aitzintxoan UPN-ko jarduerako gobernuak PSISa (Udalaz gaindiko plan sektorial eraginkorra) onartu zuen, foru interesekoa izendatuz. Iazko uztailean, Baztango Batzar Nagusiak Nafarroako Gobernuari gaia berrikusi eta erabakia birpentsatu zitzaion eskatu zion epaitegietara jo aitzin. Gobernuak aukera izan zuen galdera horren bitartez PSISa gelditzeko. Gobernuak egin zuen txostena eskasa da. Argi dago, PSISa eta proiektuarekin aurrera egiteko erabakia hartu zuen. 2008an jada enpresa sustatzailea saiatu zen PSISa bultzatzen. Orduko teknikariak Gobernuari erran zioten aski zela Baztango udal planaren egiturazko aldaketa

egitea eta modu horretan planari ekitea. Geroa Baik dio lehenagotik datorrela, hala da, baina bazuten gelditzea Gobernutik. Hori onartu behar dute.

Auzibidea berriz zertan dago gaur egun?

Batzar Nagusiak administrazioarekiko auzi bat ireki du Nafarroako Auzitegian, hori ebazteko dago. Halaber, bestetik, Sustrai plataformak “Aroztegia eta gero zer?” taldearekin bertze auzi bat zabaldu du, PSISaren eta Gobernuaren kontra. Artean, PSISa onartu dute eta enpresa sustatzaileak urtea akitu baino lehen lanean hasi nahi duela erran du. Maiatzean Elizondoko karriketan 1.500 lagun manifestatu ziren proiektuaren kontra. Ekainean herri galdeketa egin zen Baztango eredu sozio-ekonomikoari buruz, parte hartu zuten herritarrek nagusiki kontra bozkatu zuten. Lekarozen 2008an galdeketa egin zen, lekaroztarrak kontra paratu ziren, Lekarozko Herriko Batzarra ere bai. Bertako festak pasa berri dira eta giroa tenkatuta zegoen. Jendea ez dago etsitzeko prest.

Horiek horrela, aldaketaren guber- nua delakoa, bakartasunean osatua, ez



“Aroztegia proiektuan duen menpekotasunagatik, Geroa Baik Baztango Udalaren kontrako jarrera oldarkorra hartu du”

baita koalizio gobernua, aitzindari izan beharrean, iraganarekin hautsi eta gatazkak gainditzeko demokrazian sakondu ordez, berean tematu da. Erregimen zaharraren modura ari da, herritarrei galdetu beharrean, PSISari atxiki zaio. Zergatik? Hori jakin nahi nuke.

Galdera berresten dizut. Zergatik?

Ezkutuko interesak daude nonbait, Geroa Baiko agintari batzuekin lotzen direnak. Ez naiz eroskeriaz ari, tratuez eta ezagutzaz baizik. Irizpidea dutenei buruz ari naiz, gauzak erabakitzen diren tokietan eragiten dutenaz, jarrera hartzerakoan erabakitzen dutenaz.

Nafarroan gobernu aldaketa eman zen. Nola eragin du horrek Baztanen?

Baztani buruz keinu sinboliko batzuez harago ez dut aldaketa aunitz sumatu. Noski, adibidez, Gobernura deitu eta euskaraz hartzen zaituzte, beste abegi-kortasuna dago hizkuntz terminotan. Gainerakoan, aldaketa gutti. Ulertzen ahal dut Geroa Baik gobernu egoera ekonomikoko txarrean eskuratu zuela, ho-

rrek egokipen batzuk eskatzen dituela, hori islatzea gobernuaren jardunean, praktika erreal eta materialetan. Ulertzen dut ere oinordetza pozoitsua hartu zuela eta horrek baldintzatzea lehenbiziko bulkada. Ezkutuko sariak urtean 60 milioi euro zurruputzen baldin badute, arazo eta ezintasunak daude aldaketa gauzatzeko. Baina, egiari zor, horiek horrela, aldaketak deus gutxi ekarri du gurera. Adibidez, Manu Ayerdik [Gobernuko lehenbiziko lehendakariordea eta Ekonomia Garapeneko sailburua] ikerkuntza, berrikuntza eta garapena aipatzen ditu. Baztani buruz ari bada, nire galdera: zer da lurraren birkalifikazioa? Berrikuntza izateko aski termino zaharra. Gure ikuspegia beharbada ez da zuzenena, Aroztegiaren aferak baldintzaturik baikade, baina, nire ustez, borondate falta dago aldaketarako.

EH Bilduren programa politikoa aipatu duzu. Zein da Baztanen garatu nahi duzuen eredu politikoa?

2015. urtean, EH Bilduk Baztangoari buruzko iparra finkatu zuen 10-15 urtera begira. Programan tokiko ekonomiaren ikuspegitik hainbat erronka garatu beharra eta nahia ageri dira. Landa eremu baten egitura ekonomikoa urria da, Baztanen lanean ari direnen %48 gizarte asegurantzan autonomo bezala afiliatuta dago. Industria eremuetan, hirietan, %14 izaten da. Beraz, Baztango herrietan enpleguarekiko begirada aldatu behar dugula diogu. Errazena da hedabideetatik eta akademietatik gure eskualdea interpretatzea eta gure tokian eragiten saiatzea: horien begirada nagusia hiritar eta industria zale da. Aldiz, egoerak etengabeko berregokitzapena eskatzen digu. Baztango ekonomia eragile kolektiboek eraiki behar dugu, oso barreiatua dena. Eragile ekonomiko kolektibo horiek sortuta, denak bateratu dituen egitura ikusi nahiko genuke 2017rako. Errate baterako, hastapenean *Baztango zapoak* ekimena sortu genuen bertako transformatzaileekin, landa txikiko ekoizpena bultzatuz. Aitzindaritzza eta sinesgarritasuna irabazi dugu lehen urtean.

Bertzalde, horrekin bat datorren zutabe sozio-kulturala da: herri hezitzailea kontzeptua Euskal Herri osoan hasi genuen lantzen, baita Baztanen ere. Guk kontzeptu horri *Kerizu Beretik* eman diogu izena eta hainbat proiektu garatzen ari gara norabide horretan.

Zuk errana da: “Sostengarritasunaren alde egin dezakegu edo eredu ekonomiko agortuarekin jarraitu”. Zertan da Baztango eredia, sakon begiraturik?

7.848 bizilagun gara, langabezia tasa %10 ingurukoa da. Askok bere burua enplegatzen du autonomo bezala. Leku guztietan bezala, krisi sozial klimatikoa ekologikoa ari gara bizitzen eta ez daki-gu nora joko duen. Testuinguru nahasi horren barnean, gure jendartea eta komunitatea tipia da, hori da ereduaren ezaugarri behinena. Guk ditugun ahalmenak ditugu, tokiko garapena interesgarria da, baina tokiko egiturak eta erreforma sakonak behar ditugu, aldaketa estruktural sendoak.

Baztango nekazariak %7 dira. Ez da nekazal eremua, landa eremua da. Zer da landa eremua? Inork ez du definitzen zer den. Landa garapen politika erraten da. Zer da baina? Inor ez da kapaza ondo azaltzeko. Landa politikaren azterketa serioak behar ditugu, xedeak zintzoki finkatzeko. Nekazaritzarik gabeko landa eremua geratzen denean, zer dago? Bada, zailtasun aunitz. Nork egingen du lurraren eta ingurugiroaren kudeaketa? Baztan da Euskal Herriko udal lurralde handiena. Paisaia %7k kudeatzen du, dagoeneko marjinala den jarduera tasa. %10 eraikuntzako enpresak edo langileak dira. Gehienak Baztanetik kanpo ari dira. %22 industria, asko Bortzirriak eta Iruñerrian ari dira. Zerbitzu sektorea, berriz, %65-67 da: adinekoen zaintza, komertzioak, langile publikoak eta turismoa. Turismoa goraipatua da gaur egun. Baina zer da turismoa? Baztanen 10.000 bisitari izan ditugu aurtan. Gero eta gehiago datoz, baina sasoko enplegua da, prekarioa, hortik jende gutti bizi da. Gainera, turista horietako batzuek etxebizitza erosten dute, ez dute bideratzen alokairurako, eta etxebizitzaren arloan arazo larriak sortzen dituzte.

Alternatiben Herria ekimena omen da sistema aldatzeko bidea. Zu horren aldekoa zara. Baztanen aplikatzerik ba al dago?

Zaila da hori zehazten. Hasteko, jendar-tearen alternatiba –sozial, politiko eta ekonomiko– pertsonarengan gehiago pentsatuz landu behar dugu, lehengai pertsona gara, gure beharretatik hasi behar dugu. Baina, nola egingen dugu bideragarria, landa eremutako gazteen iruditegia hiriak kolonizatuta badago. Baztanen, XX. mendean eman zen hiriarren eta herriaren arteko dialektika areagotu da



“LANDA EREMUAK ERE GATAZKATSUAK DIRA”

“Landa eremuak, aldika hiritik begirartzen ditugu leku harmoniatsuak bezala, halako jatortasun eta auzo-kidetasuna ematen dena. Baina ez, landa eremuak ere leku gatazkatsuak dira, jendarteko harremanen isla. Noski, gatazka horiek beste terminoetan ematen dira. Gurean hor dira adibideak: Erdiz harrobia, Aroztegia proiektua, Gaztetxea, merkataritza-guneak. Hemen ere grebak izan dira krisi ekonomiko delata eta. Bertetik, herri dantzak direla eta, emazteak parte hartzea edo parekidetasunaren aldeko borroka dago.

Baztan anitza da. UPNren izatea lekuko. Batetik identitate kulturalak daude eta bestetik politikoak. Baina dikotomia hori aspaldion argitu da, zorionez. Aldika gertatzen da bien arteko koherentzia eta harreman zuzena, eta bestetan, diskordantzia. Nafarroako mendialdean UPNren aldeko bozak daude, bistan da. Familia euskaldunak dira, gaur egun gehienak Elizondon daude, ez hainbertze baserri eta herrixketan, hala izanik ere, horietan ere bozak jasotzen ditu. Horietan baina, herritarrek beren identitate kulturaletik politikorako jauzia eman dute. EH Bilduren bozak homogeneousak dira, Elizondon eta baserrietan. UPNren kasua ez da horrenbeste horrelakoa, UPN ari da ezaugarritze berri bat hartzen, elizondoarra da batez ere”.

berriz ere, eztabaida hori zaharberritu behar dugu. Hau da, Europako Erasmus programa hizpide, “kanpoan ikasi hemen bizi” lema da hedabide ahalsuek saltzen dutena. Bizi eredia kontsumoaren ideia-aren bidez garatzen bada, aspirazioa kontsumo hazkorraren ideia bada, sozialki gora egiteko aukera xedez, bada, kapitalismoak jendea integratzeko eta gatazka sozialak uxatzeko erabiltzen dituen baliabideekin jai dugu. Arazo ekologikoaren mugak begibistan agertzen dira.

Sostengarritasuna hizpide. Nola dago kontzeptua gaur egun, zure ikuspegitik?

Bada, askotan solas hutsa. Hitz edukiz bete behar dugu. Errespetu guztierekin diot, sostengarritasuna funtzionarioa izatea xede bada, auto-karabana izatea asteburuan norabait joateko, gaizki ari gara. Parametro horietan baldin bagaude, horrek erran nahi du gure aspirazio pertsonalez ari garela, kolektiboa ez den bertze eremu batean sartzen ari garela.

Aitzitik, sostengarritasuna iraultza kultura eta ekonomikoa al da? Bai, baina horrela planteatuta, batzuentzat ez da bideragarria, ez dauka onarpenik herritarren artean. Hein horretan proposamena guztiz erreakzionarioa gera daiteke. Lelo hau gailentzen da segituan: etorkinek lana kentzen digute. Faxismoaren muina elikatzen ari da, gizarte lehia etengabe hazten doa. Indarrean dagoen eredia agortua dela jakinik ere, ez bagara diskurtso guxtieneko bat artikulatzeko kapazak, jendeak minimoetan onartu dezakeena, zaila dugu eredia aldatzea. Garapen eredu berriak bertze kontzeptu sakoneko eta eraldatzaile batzuk landu behar ditu. ■

Dozenaka erretzen diren birziklapen planten misterioa

Hamar egun behar izan dituzte Chiloecheseko (Guadalajara) hondakin arriskutsuen plantan izandako sutea erabat amatatzeko; azkenaldian Espainiako Estatuan erre diren gisa bereko dozenaka azpiegituren artean beste bat. Euskal Herrian ere badira hainbat kasu. Zer misterio dago atzean?



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Gaztela Mantxako Seseña eta Chiloeches egin zaizkigu ezagun azken hilabeteotan, baina hemerrotekari erreposoa eginenez gero, konturatuko gara hondakinak tratatu edo birziklatzeko plantak dozenaka erre direla azkenaldian Espainiako Estatuan.

BlogSOSTenible atarian hartu dute horietako batzuk zerrendatzeko lana eta 50 zenbatzera iritsi dira di-da batean. Zenbait tokitan sutea birritan izan da, horixe gertatu da esaterako Valentziako Riba-Roja eta Alzira herrietan eta Sevilla, Pontevedra edota Madrileko beste planta batzuetan.

Zerrendan Nafarroan iaz erretako bi planta ageri dira: Andosillan bata –hondakinak garraiatu eta tratatzen dituen Rinacon Gestion S.L-rena– eta Murillo el Frutokoa bestea –erabilitako pneumatikoak tratatzen dituen Indurgarbirena–.

Baina badaude kasu gehiago. Heda-bide honen webgunean bertan eman genizun beste sute baten berri, Arabako Araitatik gertu apirilaren 25ean izandakoa: Sertego Intervesases-en ontzi industrialak tratatzen zituzten, suak fabrika kiskali eta langile gehienak kalean geratu aurretik.



GUADAPRESS.COM

Negozia bilketan, ez egiazko birziklapenean

Bistan da gehienez hidrokaburoz osaturiko materiarekin ibiltzeak badituela bere arriskuak. Baina BlogSOSTenible-ren arabera hainbeste sute “istripuz” gertatzeko probabilitatea ezinezkoa da. “Zer arrazoi ezkutuko daude atzean? Subentzioak jasotzea? Aseguru-etxeei kobratzea? Agian negozioa bilketan eta politikariek argazkia egitean datzala, eta ez egiazko birziklapenean?”, diote.

Chiloechesen baimenik gabe gordetzen ziren 20.000 tona hondakin arriskutsu, “inerte” bezala tratatzea merkeagoa baitzen enpresarentzat. *El Diagonal* hamabostekari ezkertiarrek publikatu duenez, krisiarekin halako planten gaineko deskontrola handitu eta mafiak ugaritu dira, eta erakunde publikoak dira horren erantzule: “Horretara behartuta dauden arren utzikieriaz jokatzen dute”, azaldu dio Jose Ramón Becerra Equo Euskadiko kideak.

Bestalde, aspaldion askok susmo txarrak ditu Ecoembes enpresarengan.

Chiloecheseko kasuak ohikoa den praktika bat utzi du agerian: hondakin arriskutsuen bilketan dagoen iruzurra ezkutatzeko gai toxikoari su ematea.

Ontziak kudeatzeko duela hogeitau urte sorturiko irabazi asmorik gabeko sozietatea da, eta Coca-Cola, Danone eta gisa horretako markak ditu bazkide, besteak beste. Ecoembesek du Espainiako Estatuan monopolioa alor horretan.

Eurostatek Espainiarentzat emandako datu katastrofikoek –%20 baino ez omen da birziklatzen eta %10 konposatu– adierazten dute badagoela tara handi bat Ecoembesen bilketa eta birziklatze sisteman.

Beste zenbait herrialdetan, erabilitako ontzia uztearen truke dirua itzultzen diote norbanakoari. Espainiako Estatuan, ordea, ontzia ordaindu eta berrordaindu egiten du kontsumitzaileak. Eta polizikliko aromatiko edo dioxina forman itzultzen digute, konbustio misteritsuaren eraginez. ■

OSATZE FEMINISTA

ZAPALKUNTZEN ZAURIAK LANTZEN

“Bizi ditugun zapalkuntza sistemek nabarmen eragiten dute gure gorputzetan. Horregatik, bizipenetan arreta jarri eta garapen pertsonal eta kolektiboa lantzeko proposamena luzatu nahi dugu”. Bilgune Feministako Edurne Epelderren hitzak dira, Osatze Feminista proiektuaren bueltan esandakoak.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Feminismoak aspalditik garatzen duen ideia praktikara ekarri nahi du Euskal Herriko Bilgune Feministak. Patriarkatuak, inperialismoak, arrazakeriak, neoliberalismoak... pertsonengan eragindako sufrimendua gaingitu eta osatzea, gorputzek pairatzen dituzten zaurietan atentzioa jarritz.

Hego Amerikako feministek aldarrikatzen duten sendatze-feministatik hasi dute proiekturako bidea. Izan ere, herrialde horietako eragileen bizipenak oso baliagarriak izan zaizkie.

“Sistema zapaltzaileak eraldatzeko prest azaltzen garen moduan, beharrezkoa da aldaketa pertsonal zein kolektiboa ematea”, adierazi du Epeldek. Arlo politikoan, sozialean, emozionalean zein fisikoko eragiteaz ari da: “Kolektibo politiko zein sozialak, pertsona askeak, osoak eta burujabeak bultzatzeko espazioak ere badirela sinesten dugu”. Militantzia eta esperientzia, indargune, ahalduntze eta osatze bide gisa ulertzen dituzte eta ez pertsonak erraz “erretzen” dituenak. “Borrokan ere, edozein eten da baliagarria. Gure buru eta gorputzei plazer eta atsedenerako espazioak eman behar dizkiegu”. Finean, aldarrikapenak bizipen bihurtzeko ahalegin praktikoa



EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA

dela diote, aldaketa bi norabidetan ematekoa: individual zein kolektiboan.

Hamaika zainetatik barna

Horretarako hamaika bide planteatu dituzte, “osasunaren autogestioak esparru guztiak hartzen baititu”. Emozioak, elikadura burujabetza, denboraren erabilera, artea eta sorkuntza, sexualitatea eta plazer kontuan hartuta ari dira materiala prestatzen, diziplina ugarian oinarrituko dena: yoga, taichia, elikadura osasuntsua, biodantza, musikoterapia, emozioen lanketa, meditazioa...

Norberaren zein arbasoen jakintzak (aitona-amonen aholkuak, sendaberrak...) aintzat hartuta antolatzen ari dira. Oraintsu, egonaldi batean jarri dute hau guztia praktikan: “Elikadura, loa, gure arteko afektibitatea, konplizitateak... zaindu ditugu. Tailerrak eta eztabaidak izan ditugu eta zenbait ideia praktikan jarri; bileretan gorputzari toki handiagoa egitea, esaterako”.

Momentuz Bilgune Feministaren baitan ari dira, baina Euskal Herriko eragileekin partekatzea dute helburu: “Asko sufritu duen herria da hau. Sufrimenduak utzitako zauriak osatu beharra dago”. ■

» **EDURNE EPELDE, BILGUNE FEMINISTA:**
“Borrokan ere, edozein eten da baliagarria. Gure buru eta gorputzei plazer eta atsedenerako espazioak eman behar dizkiegu”



1.500 KILOMETRO, **METRO** BATEN BILA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Paris, 1792ko ekainaren 24a. Oraindik iraultza giroan, hainbat gurdiz osatutako bi espedizio Frantziako hiriburutik abiatu ziren elkarren kontrako noranzkoan. Bata Bartzelonara bidean zihoan, besteak Dunkerke zuen jomuga. Biek zuten helburu bera: mundua neurtzea.

Hilabete batzuk lehenago, Asanblea Nazionalak erabaki zuen neurri estandar bat behar zela, garaiko anabasari aurre egiteko; Frantzia 700 neurri unitate baino gehiago erabiltzen ziren. Oinen luzera tronuan zegoen erregearen arabera aldatzen zen, arra laburragoa zen esku txikiak zituztenentzat eta, gainera, jatorri anglosaxoiko yarda eta milia nagusitzen ari ziren, eta frantses jatorrek ezin zuten halakorik onartu.

Neurria aukeratzeko erreferentzia unibertsal eta egonkorra behar zuten eta Lurra aukeratu zuten horretarako. Neurriari *metre* esango zioten, neurri esan nahi duen *metron* hitz grekoa iturri. Eta Parisetik igarotzen den meridianaren koadrantearen hamar milioirena izango zen. Hala, meridianaren neurri zehatza eta, ondoren, metroarena aurkitzeko Dunkerketik Bartzelonarako lerroa aukeratu zuten. Joseph Delambre (1749-1822) bidali zuten iparraldera eta hegoaldera, berriz, Pierre Mechain (1744-1804) abiatu zen.

Bi astronomoek triangulazio sistema bat erabili zuten neurketak egiteko eta,



BLUE SCI

Mechainek eta Delambre triangulazio sistema bat erabili zuten Lurra neurtzeko eta metroa aurkitzeko.

horretarako, goraguneetan hainbat seinale utzi behar zituzten.

Gurdi astunak eta eguraldi txarra ez ziren izan espedizioaren etsai bakarrak. Kanpandorreetan utzitako seinale asko desagertu ziren, erlijioaren aurkako korronteak elizak errausten zituelako. Muinoetan utzitako seinale asko ere txikitu zituzten, ondo ikusteko zuriz margotuta baitzeuden, eta zuria monarkiaren kolorea zen. Ondorioz, seinaleak babesteko gizon armatuak utzi behar izan zituzten neurketa puntuetan. Jakina, horrek espedizioak garestitu eta mantsotu zituen.

Bildutako datuak ez ziren batere zehatzak. Mechainek berak “Bartzelonako

zorigaitzoko neurketak” aipatu zituen Delambre idatzitako gutun batean. Azkenean, zazpi urte eta 1.500 kilometro geroago, Parisera itzultzean, heroiak bailiran hartu zituzten. Ordurako kontua urguilu nazionalarekin estu lotuta zegoen eta, emaitzak emaitza, zeukate-na aurkeztu behar zuten. Bien datuak alirutzira doitu zituzten, bat etor zitezen, sinesgarria izango zen emaitza adostu zuten eta munduari gutxi gorabeherako metro hura aurkeztu zioten. Lurreko meridianaren koadrantearen benetakoko hamar milioirenarekin alderatuta, Mechainen eta Delambre metroa, egun erabiltzen duguna, 0,2589658655 aldiz handiagoa da. ■



CONSCIENCE AND ART

Suak piztu al zuen tuberkulosia?

Duela 400.000 urte inguru *Homo erectus*-ek sua kontrolatzea lortu zuen lehenengoz eta giza eboluzioan berebiziko garrantzia izan zuen gertaera horrek lotura zuzena izan lezake tuberkulosiarekin, New South Wales (Australia) Unibertsitateko Rebecca Chisholm eta Mark Tanaka biologoen hipotesiaren arabera. Gaixotasun infekzioso gehienak (hiesa,

malaria, ebola...) beste animalia batzuegandik gizakietara egin zuten jauzi. Baina, biologoen ustez, gizakiak sua kontrolatu zuenean, gizakien arteko harremanak estutu egin ziren eta birrikak kearen erruz ahuldu. Baldintza horiek ezin egokiagoak izan ziren *Mycobacterium tuberculosis* (irudian) kaltegabea mutatu eta gaixotasun infekzioso hilgarriena bihurtzeko. ■

Hazteko, hazien hormonak



Jakoba Errekondo
jakoba@bizibartztea.eus

Landare bati kendutako puska batetik berri bat sortzeko hormonak erabiltzea ohikoa da. Landarearen aldaxkari edo hostoari itsasten laguntzeko, errotzeko, urgazle egokiak dira hormonak, batez ere sustraiak ez ematen egoskorrak direnetan. Landare batzuen puskek erraz ematen dituzte sustraiak, uretan jartze hutsa nahikoa da. Beste batzuk, berriz, temoso-temoso jarri eta sustrairik ez luzatzeko setan gogor lotzen dira. Horiekin ia nahitaezkoa da hormonak baliatzea.

Hormonak artifizialak edo naturalak izan daitezke. Naturalak zerorrek molda ditzakezu. Haziekin, adibidez. Hazi guztiek bi zati dituzte: ernamuina eta energia erreserba. Landare berria sortzeko, hazia hozitu egin behar da. Metatuta dagoen energia dantzatu, eta horrela akuilatuko da ernamuina, baldin eta sustraia eta kimua biak emango baditu. Energiaren dantza horren doinua hormonon orkestrak joko du. Musika hori abiatzeko, haziak hiru baldintza eskatzen ditu: ura, tenperatura epela eta ilunpea. Nahi bada zuzenean uretan sartuta, nahi bada ur-asetutako zapi edo paper batean bilduta, baina busti ha-



ASHLEY CAMSELL

ziak, eta, toki epel eta ilun batean, erraz ernatuko dira. Kimua agertzen denean, bixtan da, hormonon musika ageri asko ikusiko duzu. Orduan haziak oso-osorik zanpa-zanpa birrindu, zehatu. Uretan bazeuden, ur hartantxe nahasi; bestela, ura erantsi eta ondo-ondo eragin. Irazi eta bereizi: ura eta hazi-kondarrak. Biak, zein baino zein, hormonaz gainezka egongo dira.

Aldaxkak ur hormonadunetan sartu, eta eduki egun betez; ondoren, zeharrraldu loreontzian, muintegian, baratzetan... Aldaxkan sustraiak azaltzen

dituen arte ere eduki daiteke uretan. Ondoren, landatutakoan ureztatzeko ere ur hori bera erabiliz gero aise demonio itsatsi eta indartuko da. Demonio horri bidea errazteko, eman irazitakoan bereizi ditugun hazi-kondarrak aldaxka landatuko dugun lurrari.

Zein hazirekin sortu hormonak? Le-kale jendea oso egokia da: dilista (*Lens culinaris*), txitxirioa (*Cicer arietinum*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*)... Baina baita ere artoa (*Zea mays*), gariak (*Triticum spp*), oloa (*Avena sativa*), hirustak (*Trifolium spp*)... ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Eup Jakoba. Errekondoko kanaberak bota nahi ditut parda-hesolak egiteko; ilbeheran, noski, baina garairik onena noiz? Ondo segi.

Tomatezalea (Ezkio)

Eup. Beti esan izan da kanabera (*Arundo donax*) botatzeko

urtarrila eta otsaileko ilbeherak direla onenak. Hala ere, nire iritziz, otsaileko ilgora da egokiena. Neguan izerdi gutxiago dabil landarearen kanaberan barrena eta hori beraren iraupenerako ona da, eta pipiek eta antzekoek zailago joko dute. Ilbeherak kanaberaren zuntza are lehorrago egotea dakar, gainera.

Ez dut gogoan nork eta non, baina aspaldi, baten batek esan zidan berak kanabera otsaileko ilgoran mozteko ohitura zuela, etxean ikasia... Nire iritziz arrazoi zuen, eta pardatarako edo hesolatarako erabiltzeko hobea da ilgorakoa: malguagoa, pitzatzen zailagoa, lantzeko errazagoa izango dela iruditzen zait. Kanabera ondo jasoz gero, luze iraungo du: aterpean, ilunpean eta toki lehor eta freskoan.

Ondo izan!



KARABELEKO.ORG

KARABELEKO-AGIFES

Baratzeterapia



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Hernanin (Gipuzkoa) dago Karabeleko ekonekazaritza etxaldea. Agifesek (Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarte), Blasenea mintegi ekologikoak eta Kimu Bat lorezaintza eta paisajismo enpresak egin zuten bat 2014an, irabazi asmorik gabeko proiektua martxan jartzeko.

Baratzezaintza ikertzen dute bertan eta agroekologiaren filosofia gizarteratzen. Eta horrez gain, buru gaixotasuna dutenei eta bazterte arriskuan dauden beste kolektibo batzuei zuzendutako errehabilitazio psikosozialerako zentro ere bada Karabeleko.

Gaitasun sozialak eta autoestimua

Ekonekazaritza etxaldeko errehabilitazio arloaren ardura Agifesek dauka. Elkarteko erabiltzaileek aukeran duten programetako bat da Karabelekoa, eta nahi duena soilik joaten da bertako lurra lantzerara. Oier Iurramendi Karabeleko kideak kontatu digunez, astean zehar elkarteko 40 pertsona inguru pasatzen dira etxaldeketik, baina egunero bertan aritzen direnak 18-20 bat dira: "Agifesek bere psikologo eta monitorea ditu arlo terapeutikoa lantzeko. Karabeleko ekintzak dinamizatu eta baratzea nola landu erakusten

diegu". Baratzean talde lanean arituz, gaitasun sozialak eta autoestimua lantzen dituzte. Errehabilitazioa bultzatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko autonomia eta garapen pertsonala daude oinarrian.

Bakoitzaren gaitasunen arabera

Baratzeko lanetan aritzen dira batez ere Karabelekora hurbiltzen diren Agifeseko kideak: landatzen, barazkiak biltzen, bildutakoa txukuntzen... Karabeleko kontsumo taldeko saskiak prestatzen edota etxaldeko Ekodendan laguntzen ere aritzen dira. "Taldeen jende oso ezberdina dago adinez, jakin-minez, baita gaitasunez ere. Bakoitzari lan ezberdinak proposatzen zaizkio", azaldu digu Iurramendik. Berak egunero ikusten du baratzeak Agifeseko erabiltzaileei ekartzen dien onura: "Haiek landatutako eta ureztatutako letxua hazten ikusi ondoren, letxu hori bildu, prestatu eta etxe batera eramaten da han jan dezaten. Beren lanak ondorio ona duela ikusten dute, gizarteari, beste jendeari zerbait eskaintzen ari direla". Hala zioen Stanik sinatutako bineta batek: "Baratzeko ordu bat ehun psikoanali orduren pare da". Ezin uka edonorentzat izan daitekeela baratzea terapia on bat... ■



ALTXA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
"mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Irailak 23: Munitibar

Lekua eta ordua zehazteke.

Irailak 28: Elgoibar

Izarra elkarteak antolatuta.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

ARGIAKOEN GUNEA | GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK |




Parte hartu iraileko zozketan eta irabazi

Aste honetako sari nabarmendua

SUA! Euskal mitoekin ikasten

Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkarteak 2012.an kaleratutako SUA jolasa da honakoa. *Herria itxi begiak* jolasean oinarritutako karta jokoa da, euskal mitologiarekin lotutako hainbat pertsonaia uztartzen dituena. Jolasak XVII. Mendera eramango gaitu, gaue-ro-gauero herritarren artean ezkutuan bizi diren inkisidoreen garaira, herritarrak plazan erreta erailtzen zituztenera. Jokalarien zeregina inkisidoreak deskubritzea izango da, horiek herri osoa akabatu aurretik. SUA! Jolasa baino gehiago da, eztabaida, azpikoak, emozioa... ARGIAko kideen artean 4 joko zozketatuko ditugu hilabete honetan.

Argazkian, Txatxilipurdi elkarteko lantaldea, Sua! jolasaren egileak.



TXATXILIPURDI

943 79 54 46
www.txatxilipurdi.com

#aisialdia
#partehartzea
#hezitzailea
#feminismoa
#herrienmundua

Hilabeteko gainerako sariak



Mugarik Gabe GKEak argitaratutako "Desazkundera eta ondo bizitzea" eta "Elikadura burujabetza, genero ekitatearekin" liburuxkak (2 sorta).



Ekologistak Martxan-ek Euskal Zor ekologikoaren inguruan egindako liburuxka eta dokumentala (4 sorta).



Lanki ikertegiak argitaratutako Joseba Azkarraga soziologoaren "Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa" (4 liburu).

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ARGIA ENGLISH

Euskal Herria ingelesez, etxetik nazioarteari kontatuta



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Ez beldurtu, kurtso berriarekin ez dugu astekaria bi hizkuntzatan irakurtzen hasi beharko. Hilabete batzuk badira lehen artikulua, albiste eta erreportaje bakanak ingelesera itzultzen hasi zirela. Markak hautsi zituen Korrikari buruzko erreportajeak, auzolanean 40 hizkuntzataraz itzulita. Helburua garbia da, nazioarteari Euskal Herritik kontatzea gurean gertatzen direnak. Ezaguna baitzaigu hemengoari buruz kanpotik idaztea, informazio osorik gabe eta askotan interesarteko.

Orain arte egindako itzulpenak sarean zabaldu dira, eta ARGIAk Creative Commons lizentzia librearekin funtzionatzen duenez, nazioarteko hainbat hedabiderek harremana du eta haiek ere zabaldu dituzte testu horiek.

Ingelesera itzulitako lehenengo artikulua horiek izandako harrera eta arrakasta ikusita, maiztasun jakin batekin itzulpenak argitaratzen hasi da ARGIA Aritz Branton 11 itzulpen enpresako kidearen laguntzarekin: Brantonek bi

erreportaje itzuliko ditu ingelesera hila-betean, eta sarean zabalduko dira. Itzul-tzaileak antzeko lanen bat egin du, baina gustura hartu du ARGIAko artikulua lantzeko erronka. Testu hauek aztertu eta lantzeko aukera zabaldu emango diotela esan digu, eta lan "interesgarria" izango dela pertsonalki ere.

Estreinalako itzulpena egin du dagoneko, Katalina Erasoren pastoralari buruzko erreportajea. Hemendik aurrerakoak zein diren ezagutzeko sarean jarraitu beharko dituzu, irakurle: www.argia.eus/english helbidean dituzu artikulua eta bideo denak. Eta @ArgiaEnglish kontua jarrai dezakezu Twitterren eta Facebooken.

Imajinatzen al duzu Euskal Herriaz idazteko Euskal Herriko iturriak erabiltzen dituen nazioartea? Gurea guk azaldua? Pauso bat da ARGIAk emandakoa, eta ederra izango litzateke indarguztiak norabide horretan joatea "Basque Country" guk eraikitzeke. Bitartean, ARGIAk txikitik eragiten jarraituko du. ■

Azalaz azaleratuak



Kattalin Minerrek horrela osatu zuen eztabaidari bide eman zion mezua "esan gabe doa, artikulua bikaina dela eta Erasuo ekartzea eskertzekoa. Baina atentzioa deitzen dit, gurekin hainbeste BAINA izatea beti. Hots, gure idolo eta transgresoreekin askoz ere exijenteagoak garela, idolo unibertsal eta patriarkalekin baino".

Axier Lopezek erantzun zion: "Ados nago 'gureak' ez diren kasuetan zer goraipatzen den ta zer 'nahita' ahaztu, baina ez dut uste eredu hori kopiatu behar denik".

Minerrek emandako errematea: "Nik ere ez, e? Erasok... tel! Baina, gehiago etorri zaizkit besteekin ez ditugun exijentziak burura. Kaña denei eta hil idoloak!".

2016ko diru-laguntzen zain, urtea luze

Eusko Jaurilaritzak, astekariari eta web-guneari dagozkien diru-laguntzen lehen ordainketa urri bukaeran egingo duela espero dugu (diru-laguntzetan landu dituzten irizpide aldaketak izan omen dira atzerapenaren kausa). ARGIArentzat diru-laguntza hauek oso garrantzitsuak dira, gure aurrekontuaren %40. Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, lehen ordainketa abenduan egingo duela jakinarazi du (kasu honetan, Aldundiak Europari eskatutako baimen juridiko berezi bat omen da prozesua atzeratu duena). Zer dakar ARGIAk diru-laguntzetatik aurten oraindik ezer jaso ez izanak? Bada gure aktibitate osoa tentsionatu duela ikuspegi ekonomikotik. Egoera honek behartu gaitu ezohiko kontu kreditu bat eskatzera, eta horren kostuei erantzun behar izatera. ARGIAren jarduera egoki joan dadin, lehen ordainketa uztailerako jasotzea da beharrezko.

STRANGER THINGS

E.T., The Goonies eta 80ko hamarkadako esentzia pantaila txikian

Uda honetan zeresan handia eman duen telesaila izan da eta oraindik ikusi ez baduzu, interesatuko zaizu jakitea *Stranger things* telesailaren arrakastaren atzean dagoen gakoetako bat: ondo erabilitako nostalgia.



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

“*Goonies never say die*” oihukatzen duzun bitartean Willy begibakarraren altxorraren bila abiatu. E.T. bezalako maskota bat alboan duzula, bizikleta gainean zerua zeharkatzen duzula imajinatu. Edo, *Stand by me* filmeko protagonista bazina bezala, hildako baten inguruko misterioa argitzen saiatu. 25-40 urteen artean badituzu, ziur askotan amestu duzula mundu zoragarri horien barruan zinela. 1980ko hamarkadan, Reiner, Spielberg, Zemeckis edo Donner bezalako zuzendariak magiaz beteriko zinema oparitu zigten. Umorea eta beldurra uztartuz, familia arteko istorioak, lagunartekoak eta batez ere, adin-nagusitasunera jauzia islatzen zituzten filmak ikusteko aukera eskaini zigten; eta abentura guzti horiek belaunaldi oso baten bihotz eta garunean betiko itsatsiak geratzea lortu zuten. Matt eta Ross Duffer anaiak garai hartako semeak izanik, berreskuratu beharreko esentzia hura pantaila txikira ekartzeko beharra zegoela erabaki zuten eta 2016 honetan Netflix plataformaren

eskutik *Stranger things* telesaila oparitu digute.

Zalantzarik ez dago, udako telesaila bihurtu da. Aspalditik iragarria zegoen, baina sorpresa hartu dute mundu osoan. Sare sozialak sutan jartzea lortu eta urteko fenomenoetako bat bilakatu da. 80ko hamarkadako erreferentzia entsalada hau ikusteko, zortzi orduko maratoiak eta hainbat ekitaldi antolatzen iritsi dira.

Eta zein izan da Duffer anaiak zantza lortu duten tekla magikoa? Telesailaren posterra ikuste hutsarekin –Drew Struzan marrazkilariari omenaldi nabarmena–, gure Delorean partikularrean hamarkada zoragarri hartara bidaia egiteko aukera eskaini digutela. Sentsazioen berpizte etengabea, eszenaritze perfektua, karakterizazio eta interpretazio bikainak –Wynona Rider salbu, guztiz esajeratua eta neurritz kanpo dagoela uste dut– eta ezin hobeto tartekaturiko beldur dosi txikiak. Umorea, zientzia fikzioa, suspensea, maitasuna eta akzioa modu hain orekatuan uztartzea ez da batere erraza.



Umeak *Dungeons & Dragons* joko mitikoarekin ari dira etengabe. *Evil dead*, *Jaws* eta *The Thing* filmen posterrak dituzte. He-man panpinak, Casio markako erloju eta kalkulagailuak, *Star Wars*, *Marvel*.... eta zer esan *The Clash*en *Should I stay or should I go* abestiarekin gertatzen den guztiaz. Erreferentzia ugari topa daitezke zortzi ataletan zehar, baina ez pentsa tresna eta trasteetan soilik geratu direnik, gidoia, argazkia, soinu banda eta muntaia bezalako alderdian ere hainbat film eta zuzendari izan baitituzte kontuan. Lehen atalean, adibidez, pertsoniak aurkezterako orduan, saihestezina *The Goonies* filmarekin loturak ikustea. *Poltergeist*, *Alien*, eta *The Frighteners* filmen ukituak ere nonahi. Cronenberg, Guillermo del Toro, Carpenter edo Peter Jackson bezalako zuzendarien eragin nabarmena izkina guztietan. Baina beste zuzendari baten eragina sendago loratzen da, naturatik oso gertu dauden auzoak –ezagutzen dituzu, film askotan ikusi dituzue– agertzen diren unean: klaseertaineko



familiak, ezustean gertaera fantastiko batekin aurrez aurre jo eta biziraupen tresna bezala inozentzia erabiltzen dutenean, gure buruen gainetik hegan egiten duen izena Steven Spielberg da. *E.T.* zoragarriarekin etengabeko loturak: kasu honetan, gobernua, estralurtar baten atzetik aritu beharrean, botere bereziak dituen neskatxa baten atzetik arituko da; aipatzekoak jazarpen-eszenetan ikus daitezkeen linterna eta bizikletak ere; eta *Jaws* filmeko plano berbera erabiltzen duen uena ere, idazteko makina azaltzen den momentua, azpimarratzeko modukoa.

Erreferentzia literarioak bilatzen hasiz gero, telesailaren ezinbesteko beste zutabeak Stephen King du izena. Drew Struzanen estiloko posterra ikustean zuzenean Amblin ekoiztetxera bidaia-tzen badugu, erabilitako tipografia retroak idazlearen liburuetara bideratuko gaitu. Ume taldeak naturaz kanpoko elementuei aurre egitean ume izateari uzten dion eremua ere, “King eremua” dugu. Telesailak argi uzten du hasie-

ratik txikitako lagunak garrantzitsuak direla, *The body* atala ikusi besterik ez dago horretarako: idazlearen kontakizun baten izenburu berbera da eta urte batzuk geroago *Stand by me* filma bihurtu zen –keinu argia, telesailean umeak trenbidetik doazenean–. Baina herri txiki batean umeek munstroen aurka borrokatzen dutela aipatzen badugu, *It* izan liteke lotura zuzenena. Edo *Salem’s Lot* bezala, gauaren erdian galdurik ikus daitezkeen haurrak, atmosfera beldurgarri batez inguratuta. Eta jakina, Eleven izeneko neskatxak *Carrie* filmeko pertsonaiaren antzeko “botereak” ditu.

Keinu eta lotura kultural ugari, bai, baina ez pentsa horiek direnik ekoizpen honen sostengu bakarra. Orain arte estreinatu diren nostalgia ariketa guztiekin alderatuz, *Stranger Things* en abilezia handiena da ez duela guztia kalkatu, eta batez ere, ez duela atmosfera guzti hori azukrez bete. Alegia, nostalgiaz inguratutako inozentzia iluntasunetik jaiotzen dela eta ez jatorri naif batetik.

Baina batez ere, maitasun handiz eginitako telesaila dela. Ez nuke esango maizulana denik –ezta gutxiago ere– baina bai uda honetan gehien gozatu dugun telesaila.

Hori bai, Indiana Jones filmeko elkarrietzeta guztiak buruz ez badakizkizu, zure etxean *Ghostbusters* filmaren posterririk ez badago, apalean zenituen VHS zaharkituak malenkoniak gogortzen ez badituzu, *E.T.*-ren soinua banda entzutean oilo-ipurdia jartzen ez bazaizu, bizikleta gainean abenturak bizi-tzea aspergarria iruditzen bazitzaizun edo inoiz basoaren erdian egurrezko etxolak eraiki ez badituzu; azken finean, 80ko hamarkadako semea ez bazara, gozamen mailak nabarmen egingo du beheara, ekoizpen arrunta bilakatu arte. Duffer anaien lan berri hau pasioz ala axolagabetasunez bizi-tzea, zein urtetan jaio ala hezi zaren, zuzenki proportzionala baita. Nire kasuan, 1984 urtekoa izanik, argi eta garbi diot: gora *Stranger things* eta gora 80ko hamarkada! ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizi gara, bizi!



Amaia Alvarez Uribe



Baionak ez daki

BEA SALABERRI

Susa, 2015

Bea Salaberrik bere *opera priman* idazleek gomendatzen dutena egiten du, hau da, literatura idazten hasteko inguruneari begiratu behar diogu begiak ondo zabalik ditugula eta gure koadernoan jaso interesatzen zaizkigunak. Honekin batera, idazlea izateko asko irakurri behar dela ere esaten dute. Besteek egin dutena ezagututa ereduak izateko eta idazteko era desberdinak ezagutzeko.

Inguruari begiratzeko lanean, etxean, lanean eta kalean gertatutakoak eraman ditu orriotara, eta egunerokotasunean topatu dituen printzak irakurlearekin partekatu. Modu honetan desautomatizaziorako gonbitea eta kontzienteki bizitzeko deia egin digu lan honekin.

Gure bizitzan oharkabean pasatzen zaizkigunak edo kultura eta tradizio batzuen oinordekotza transmititzen dizkigu 30 kontakizunotan. Alde batetik, zertzeladak eta inpresioak ditugu, eta beste alde batetik, genero eta klase hegemonikoen presentzia.

Salaberrik ohiko une, toki eta objektuak begien aurrean ipintzen dizkigu haien eraginari edo presentziari buruzko gogoetak eginez. Adibidez, *Ortzia uda mineanen* udako ekaitzek ekartzen duten lur bustiaz ari da, *Biga bostetan Marengoran* Baionako kale batzuen artean kokatzen gaitu ematen dituzten aukerak aletuz, edo *Garbigailu-larsenen* etxeko soinu banda denari begira jartzen gaitu.

Honez gain, gure kulturako harreman, jokaera eta erritualei egiten die kasu, klase gatazkak edo pobreziaren ondorioak agertuz eta kritika soziala eginez *Heroiak* narrazioan, edo familiararen egituraren pisua argitan jarritz *Bayonne 17n*, baita hilekoa nola bizi

duen azalduz *Corriaken*.

Esperientziak eta emozioak ere ekaritzen ditu memoriaren bidez, hala nola, haurretan hain bereziak diren zabuak edo txangoak eta hauek sorrarazten dizkiguten sentsazioak *Gorgoinan* eta *Autobusan*, edota *Soroan hordiko* eta *Ator botoiako* zoriona eta gozamena.

Esan bezala, ingurutik jasotakoak konpartitzen ditu irakurleekin, baina honekin batera ere eredurik aipatzen du, bereziki Itxaro Borda. *Gasna* izeneko testuan idazle honen izena eta bere %100 *basque* liburuari erreferentzia egiteaz gain, liburuaren lehen narrazioaren izenburuan ere topa daiteke Bordaren estiloaren eragina. *Negarra begian* izenburua ipini dio euskal kantutegiko abesti ezagun bati erreferentzia eginez, Bordak bere detektibe nobela guztietan erabiltzen duen baliabidea.

Azkenean, liburu honek, *Zergatik ez?* narrazioan esaten duen moduan, "bizi garela sentitzeak du inporta", bestela esanda, bizi-tako horren jabe izateak. ■



Bea Salaberrri idazle baionesa Donamartirin sortua da, Nafarroa Beherean.

» TELEGRAMA

Eraso eta **Humus** taldeen eskutik, gau kañeroa prestatu dute irailaren 16an Donostiako Dokan. 20:00etatik aurrera, sarrera 7 euro **STOP** Irailaren 15etik martxan da Bilborocken **Villa de Bilbao pop-rock lehiaketa**: kontzertu ugari eta estilo askotakoak, eta denak doan! **STOP Neighbor**, Maite Larburu hernaniarrak eta Josh Cheatham estatu batuarrak osatzen duten taldea zuzenean entzuna ahalko dute Iruñean: zita Katakraken da, irailaren 20an, 19:00etatik aurrera **STOP**

» KONTZERTUA

Egurra latza



Joxi Ubeda



Inorabidea

ZTAH

Autoekoizpena, 2016

Hamabi kantu basati eta bortitz dau-
de Ztah taldearen diskoan. Doinu ilu-
nak, astunak eta errepikakorrak dira,
eta deathcore, hardcore eta metal ai-
reak suma daitezke kantuetan. Gupi-
darik eta errukirik gabe aritzen dira,
inolako txantxarrik gabe. Taldekideek
egurrarkore bezala definitzen dute be-
raien musika. Hala baita, egurra latza.
Oso ongi egina, eta diskoa bera ere eder-
ki ekoitzia dago.

Kantuen bidez kritika, salaketa eta
aldarria egiten dute: “Abiadura handiko
bizirik ez, dugunarekin nahikoa dugu,
abiadura handiko trenari ez, bizitzeko

denbora behar dugu”. (*Tren tren*), “Es-
kemak apurtu, saihezbide guztiak bide
nagusira joaten baitira!” (*Inorabidea*),
“Faxismo gordea demokraziaren gibe-
lean” (*Ilusioarekin dantzari*), “Beti diru
gehio behar, amaiera gabeko gose han-
dia” (*Ehun hamar dollar*), “Naturaren
harrapaketak, ingurumenaren kutsa-
tzeak, gizakiaren hedapenak ondorio
bakarra dute, gizakiaren desagerpena”
(*Zazpi miliar arrazoi*), “Geroa sortu,
etorkizuna zure esku dago, ideiak bul-
tzatu, etorkizuna gure esku dago” (*Ge-
roa sortu*), “Zein izango da bere patua,
eraso matxisten biktima? Hurrengo zen-
baki mutua?” (*Txanogorritxuren patua*),
“Ez saldu Euskal Herria, gure herria ez
saldu” (43769).

Ztah taldea 2010. urtean sortu zen
Donibane-Ziburuko gaztetxean. Oier
(Hats, Stakipop), Jon (Hats, Stakipop)
eta Pilo (Glokom) ziren hasierako talde-
kideak eta ondoren Iñaki (Dementzia,
e-Volv, PIBAllStar...) haiekin elkartu zen.
2011. urtean EP bat kaleratu zuten eta
aurten argitaratu duten *Inorabidea* dis-
koa beraien lehen lan luzea da.

Taldea jendaurreko emanaldi batean
ikusteak merezi du, dudarik gabe, trans-
mititzen duen indar guztia hurbiletik
ikusteko eta sentitzeko. ■

Ztah taldea agertokian.



Abereen mendekua

EMANALDIA

Zoo taldearen kontzertua.
Udan, Baxenabarreko borda batean.



Andrea Zubozki



Zoo taldeak aurren plazaratu du bere lehen diskoa. Orain arte, taldeko hiru musikariak beste formazio batzuekin ikusi izan ditugu (Izate, M.A.K, 466...).

Kontzertuari hasiera emateko, kazoo batzuen laguntzaren bidez publikoak kontzertu gelarat deitu dute, artaldeari sartzeko gomita eginez! Taldearen unibertsoaren aurkezpen ttipi baten ondotik *Makakak* kantua eman digute.

Hiru musikari

Baterian Bixente, urtxintxa eta basamortuko animalia baten arteko nahasketak; tinbal apaletik kaxara jauzika, baina erritmo astun eta pisutsu batzuk erabiliz.

Baxuan Peio, hartz polar-ostrika; energiak beterik dabil tipoa eta noiztenka burua baxutik altxatzen digu bere musika-abere-kideenganat joateko.

Perkusio elementu gordin eta baxuaren harmonia ilunek giro nahiko *tribala* sortzen dute (ez dut maite "tribal" hitza

baina besterik ez dut atzeman...). Elefanteen martxa basati bat!

Ahotsean Jon, erdi krokodilo erdi zimino. Gehien bat rapeatzen du, eszena publikoraino zabalduz.

Gitarrarik gabeko talde bat

Aspaldi honetan horrelakorik ikusi gabe geunden. Gitarrarik ez izateak ez du eskasik sortzen, justuki atentzioa zorrozten du gertakizunei. Gitarraren hutsak, taldearen informazio musikala argitan ezartzen du. Baxuan ekarrirako harmoniak nahikoak dira unibertso zehatz eta berezi baten sortzeko. Horrez gain, gitarraren hutsak batera eta ahotsei lekua uzten die.

Taldeakide guztiak kantuz-rap-oihuka ari dira: ahate banda baten hegaldia!

Diskoko kantuak eta bertsio bat

Kontzertuan diskoko kantuak entzun ditugu: *Kabalak*, *Axeria*, *Harrak*, eta beste...

Dut taldearen bertsio bat ere egin dute (uda honetan ikusi ditudan kontzertu talde gehienek bezala!). *Aizkorak zorroztu* abestia eman digute Zooko taldekideek. Haien abestien artean nahiko naturalki pasa den bertsio bat, nola baxurde bat zerri tropan kukuturik.

Abereen mendekua kantuarekin bukatu dute. Baterian erratzekin hasten da eta baxuan melodia eder batekin. Erdi kantu, erdi istorio, abestia poliki hasten da, indar gero eta gehiago biltzeko bidean, leopardo baten ihizi kurtsa bezala.

Antilopearen atzetik zoan kantuari final bortitz eta sakon bat eman diote.

Ezohiko kontzertu bat

Plazer handiz begiratu dut (naiz eta pixka bat luzea iruditu).

Zook musika zuzen eta gordina egiten du, eta abileziak defenditzen eszena gainean. Orain arte aukera gutxi izan ditugu haien ikusteko, baina erne egon hurrengo kontzertuei... kaiolak zabalik dira! ■

Fernando Tarancón. Astiberri argitaletxeko arduraduna



Joker komiki denda 1994an zabaldu zuen Bilbon Fernando Tarancónek (1971, Bilbo), kazetaritza ikasketak amaitu berritan. Geroago etorri zen Astiberri argitaletxea, 2001ean. Garai latzak igarota, badirudi egun aro gozoa bizi duela komikiak eta horren isla da Joker-Astiberri bikotea. Iaz denda Euskalduna kaleko egoitza handiagora eraman zuten eta argitaletxeak 500 titulu ditu argitaratuta, hamabost urte bete dituen urte honetan.

“Nobela grafikoari esker, egungoa komikiaren inoizko garairik onena da”

Kolpeka ikasita

“Hasieran dena da polita, ideal bat nahi duzu, baina gero lohitzen zara, kolpeak hartu, liburu batzuek ez dute funtzionatzen... Ondoren, beste era batera maite duzu lanbidea. Kolpeka ikasi dugu, baina txikiak izanik, kolpeak ere derrigorrez txikiak behar zuten. Zenbakiez ez dakigunez, argitaletxea itxi behar genuenean ez genuen itxi, pentsatzen genuelako kredituak eskatzen jarrai genezakeela eta egunen batean funtzionatuko zuela. Batzuetan ezjakintasunari esker egiten duzu aurrera”.



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Liburu-saltzaile eta editore rolen arteko harremana nola daramazu?

Bata bestearen ondoren etorri denez, alderdi guztiak kontuan hartzen ikasi dut. Batzuk besteei buruz gaizki esaka entzuten ditudanean... gauzak ez dira zuri ala beltz. Liburu dendak zein argitaletxeak ixten dira, beraz, arrazoia hor nonbait egongo da. Gainera, emaztea ilustratzailea da eta badakit zer gogorra den haientzat bakarka lan egitea. Indarrak gehitzea da kontua, ez kentzea.

Ondo doakizuela dirudi.

Bai, ez daukagulako gastu handiegirik edo azpiegitura erraldoirik. Apurka-apurka hazten joan gara eta, hasieran hain gaizki pasatu genuenez, kostatu zaigu konturatzea hobeto ari ginela, zortzi urte generamatzala galerarik gabe. Tira, ez dugu egundoko soldatarik eta ez dugu autorik, baina ez zen hori gure helburua.

Erreferentzia nagusia bilakatu zarete Espainiako Estatuan?

Nobela grafikoaren ez tandarekin batera heldu ginen, hasieratik ikusi genuen etortzen eta bat egin genuen berehala. Erreferentziatzko argitaletxe bihurtu gara Espainiako egileen artean, baina horrek ez du esan nahi gugandik kanpo egile onak ez daudenik. Saiatzen gara egileak ondo tratatzen eta eurek estimatzen dute gure lan egiteko modua. Berriki, egileekiko negoziatioetan bik esan digute gure zatia igotzeko, gutxiegi eskatzen genuela.

Orokorra da, baina. Ondo dabil komiki mundua.

Bai, 80ko hamarkadan leherketa bat izan zen, baina puztuegia eta ganorarik gabea. Azken urteotan, ordea, hazkundea oinarri sendoagoen gainean gertatzen ari da, irakurle berriak sartzen ari dira, lanak gero eta hobeak dira. Nobela grafikoari esker, egungoa komikiaren inoizko garairik onena da irakurlearentzat. Duela urte batzuk literaturazale edo zinemazale despistaturen bat komiki interesgarri baten bila dendan sartzen bazen, ezer gutxi genuen hari eskaintzeko, *Maus*-en



“80ko hamarkadan leherketa izan zen komikiaren munduan, baina puztuegia eta ganorarik gabea. Azken urteotan, ordea, hazkundera oinarri sendoagoen gainean gertatzen ari da”.

lehenengo zatia, Carlos Giménez-en *Paracuellos* eta beste lau edo bost titulu zeuden. Egun, berriz, nobelan edo saioan irakurtzen dugunak badu islarik nobela grafikoan, are, bertara heldu den jende asko komikitik pasatu gabea da.

Industriatik aparte garatu da nobela grafikoa, beraz.

Bai, komikiaren hiru industria multzo handi daude munduan, Espainian duela hamabost urtera arte komikia ekoizten den moduan ekoizten dutenak: Marvel amerikarra, manga japoniarra eta franko-belgikarra. Bertan, marrazkilaria langilea da, berdin marraztu behar ditu erromantzea, pornoa edo ahatetxoak, familia mantentzeko. Azken urteotan, ordea, egiletza artistikoko beste eredu bat garatu da, literatura egileena: nork bere istorioa kontatzea. Nazioarteko mugimendua da, ez dizu ziurtatzen irabazirik, baina guk hasieratik egin dugu bat horrekin eta gaur egun gure egileen eskubideak mundu osoan saltzen ari gara.

Gai eta ikuspegi berriak dira, *Una entre muchas*-en genero indarkeria kasu.

Istorio jakin bat kontatu beharrak bul-

tzatuta marraztea, lehen horrelakorik ez zegoen, komikia adierazpide pertsonaltzat hartzea. *Una entre muchas* paradigmatikoa da, gizartearen isla. Iaz *Gazpacho agridulce* komiki kostunbrista argitaratu genuen, txinatar etorkinen seme-alaben pasadizoak, haietako bategen kontatuak. Egun komikian gehien interesatzen zaidana ez-fikzioa da.

Hala ere, *frikismo* irudi hori du oraindik komikiak.

Ni mugitzen naizen giroan ez, baina ez naiz mundu errealean aritzen. Unibertsitatean ibilitako lagunen afaria egin genuenean pentsatu nuen: “Astiberrin nabilela esaten diedanean”... Inork ez zekien zer zen Astiberri, eta jende jantziak dira denak. Askorik aurreratu da, egun kultura orrialdeetan agertzen dira komikien aipamenak, lehen gazte gehigarrietan baino ez.

Hobekuntzak euskarazko argitalpenei ere eman die bultzada?

Zaila egiten zait euskarazko edizioez hitz egitea, iaz lau gauza atera zirelako. Gu bigarren urtean hasi ginen euskaraz argitaratzen. Desastrea izan zen eta beldurtu ginen. Duela bi urte Javier Isu-

siren *Baleak ikusi ditut* ateratzea, berriz, erabat logikoa iruditu zitzaigun. *Mitologika* bildumaz gain, urtero bi ateratzen ditugu euskaraz: Paco Rocaren *Zimurrak eta etxea*, Gallardoren *Maria eta biok*, eta *Mariak 20 urte ditu*. Konfiantzazko egileekin egiten dugu hori, 1.000 aleko tiradagatik miseria bat ordainduko diogula esan eta onartu egiten dutenak.

Euskarazko zer proposamen arrakastatsu irudikatzen duzu?

Euskaraz eta arrakastatsua... Kostatzen zait hitz biak lotzea. Nahi nuke, ordea, jatorrizkoa euskaraz izanik arrakasta izatea eta gaztelaniara pasatzea. Gaiari dagokionez, gustatuko litzaidake, ganorazko proposamen bat balego gu gazte gineneko garaia islatzea: Bilbo industrial, birmoldaketa, ETaren berunezko urteak, gerra zikina, droga... Gure eguneroko normaltasuna izan zena. Ikusi dudan guztia oso deskafainatua iruditu zait, agian oraindik posizionatzea eskatzen dizutelako eta horrek beldurra sortzen duelako. Oraindik urte batzuk pasatu beharko dira akaso, baina gure belaunaldiak kontatu beharko du, bizi izan dugun azkenak izan garelako. ■



“Gerturik daukagu odola (zezenena)”

Ez bilatu trikimailurik, argazkia benetako da. CTA existitu egiten da eta ondo bizirik dago, Tafalla aldean. Guri, geurez, ez litzaiguke halakorik bururatuko. “Jon Idi goras, Amorebietako ‘txikito’ handiaren oroimenak gidatzen gaitu”, esan du taldeko bozeramaile Patxi Zezenarrok, “bada garaia independentziaren erronkari adarretatik heltzeko; Euskal Herri askea eta zezenzalea lortu arte ez dugu etsiko”.

Giro onean, euren egoitzara gonbidatu gaituzte; zeharo hunkigarria izan da 80 eta 90eko adarkade... barka, hamarkade-

tako pegatinetan aspaldiko leloak berriro irakurtzea: “Presoak kalera, zezenak plazara”, “Zuek, animalistak, zarete terroristak”, “Zezen bipil, jo ta bertan hil”, “Muleta, herria zurekin”, “Zezen gogorrari, ezpata zorrotza”, eta beste hainbeste adarrikapen (hara, berriro!) gogoangarri...

Elkarrekin arratsalde ederra igaro ostean, adio esan baino lehen garbi utzi dute ez daudela amore emateko prest: “Gure ideiak muturreraino defendatuko ditugu. Soka-muturreraino, alegia”. CTA, jalgi hadi plazara.

SAREAN ARRANTZATUA

Euskaldun izatea garestia da gero!



Alarde baztertzaillekoak ez ditugu ulertzen



Independentziara zihoan familia katalan batek trafikoa eten du gasolina gabe geratu ostean

Familia Bartzelonatik abiatu zen 2012ko irailean, bainujantzi, kubo, pala eta eguzkitako betaurrekoekin, oporren amaiera independentzian pasatzeko asmoz. Bi haurren ametako batek kontatu duenez, umeak “noiz iritsiko gara?” galdezka hasi ziren handik bi urteko Diadatik aurrera, egoera nahiko kargantea sortuz. “Atasko batean gaude, baina laster, laster”, esanez lasaitu zituen beste amak hasieran. 2015eko Diada iritsi zenerako “Via lliure” zioten seinaleekin “jada gertu gaude” ere

esatera iritsi ziren. Alabaina, Beranduegiri kontatu diotenez, urtebeteren ondoren “A punt” daudela dioten errepide-seinaleek ez dituzte umeen “asko falta da?” eta “eta orain zenbat falta da?” galderak eten eta, gauza baten eta bestearen artean, gasolina botatzea ahaztu. “Askok sentitzen dugu eragin dugun arazoa. Puntu honetara iritsita, uste dut bueltatzea izango dela onena”, adierazi dute gurasoek. “Independentzia inportantea dela, baina hauek jada unibertsiteteen egoteko adina dute”.



Familiako burua restop bateko komunera sartzeko ilaran.


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK


ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545
HARPIDE@ARGIA.EUS
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
<input type="checkbox"/> ARGIA Erean jaso nahi dut	
<input type="checkbox"/> ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ SOILIK	
<input type="checkbox"/> ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK	
<input type="checkbox"/> ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK	





1516 2016

Bake-itunak

San Telmo Museoa, Koldo Mitxelena Kulturunea

2016-6-18 / 2016-10-2

BAKEA
 PAZ



Antolatzaileak



DSS2016.EU



DSS2016.EU: Erakunde laguntzaileak



Donostiako Udala
 Ayuntamiento de San Sebastián



donostiakultura.com



Babesle-erokorra



Laguntzaileak



San Telmo Museoa: Patrono pribatuak



San Telmo Museoa: Enpresa ongieleak

